

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Egia, gerra garaian biktima, eta gerraostean borrero? RAMON SOLA > 11

ANE ARRUTI LOPETEGI, KEIA: «Edo nik zerbait egiten nuen edo ez zen inor etorriko ni salbatzera» > 22

2022ko martxoaren 19a | XVI. urtea • 766. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



BEGIRATZEN AL DIOGU POBREZIARI BEGIETARA?

> 12 Idoia ZABALETA | FOKU



Errusiaren «gerra mota» ez da Ukrainako eta Siriako dramak hurbiltzen dituen kontu bakarra 04

Gero eta ikasle gehiagok ezagutu nahi dituzte txinera, japoniera eta koreera 08

Aporofobia edo pobreziari begietara begiratzeko ikara 12

Artiumeko erakusketa batek «pentsatzeko leku baten» aldarrikapena berreskuratu du 17

Elkarrizketa: Ane Arruti Lopetegi 22

Sarean 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

03 **Gorka Elejabarrieta:**

Internazionalismoaz

10 **Oier Gorosabel:** Zer nahiago, tratamendu eroso ala eraginkorra?

11 **Ramon Sola:** Egia, gerra garaian biktima, eta gerraostean borrero?

16 **Alai Zubimendi**

20 **Gorka Etxebarria Dueñas:**

Sorgin ehiza

21 **Amaia Nausia Pimoulier:**

Guraize efektua

27 **Joxean Agirre:** Zarautz
Whatsappez

27 **Xabier Izaga Gonzalez:** Gureak eta demokraziaren aurkakoak

30 **Arantxa Urbe:** Hezkuntza sistema estatala



{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Internazionalismoaz

Herri, borroka, bide bakoitza bakarra da, eta ondorioz, ez dago besteengandik hartu eta erabat berdintsu inplementatu daitekeen esperientzia edo irakaspenik. Badira, baina, norbere biderako interesgarriak, garrantzitsuak, izan daitezkeen besteen esperientzia ugari. Egoera, helburu, eztabaida, arazo, mehatxu, aukera berdintsuak eman dira munduko hainbat tokitan. Egoera, helburu, eztabaida, arazo, mehatxu, aukera berdintsuei aurre egin behar izan diete munduko hainbat talde, nazio askapen mugimendu, alderdi, kolektibok. Pilatutako esperientzia, jakinduria hori guztia nola jaso eta beste batzuen esku nola jarri asmatzea zaila da. Nazioarteko harremanen helburuetako bat hori da, hain zuzen. Beste hamaika borroka eta bizipenen ezagutza zure borrokaren esku jartzea. Hezkuntza sistemaz ari bagara, jakin dezagun Finlandiako eragile ezkertiarren esperientzia nolakoa den. Gatazken konponbide demokratikoaz ari bagara, begira diezaiozun Irlandako Sinn Feini edo Hegoafrikako alderdi komunistari. Eta beste hamaika adibide.

Guevarismoaren oinarria: borroka lokala eta globala uztartu egin behar dira, mundu justuago bat eraikitzeko bidean euskaldunak egin dezakegun ekarpen garrantzitsuena Euskal Herri libre eta justuago bat eraikitzea baita.

Gure ezberdintasunen inguruan eztabaidatu beharrean, gure adostasunen arabera elkarrekin lanean hasiko bagina, bizi osoa eman genezake elkarrekin borrokan. Hori edo antzeko zeozer zioen Raul Sendic handiak Uruguaiako Fronte Zabalaen filosofiaren inguruan hitz egiterakoan. Munduko txoko askotan gertatutakoaren kontra, Uruguain ezkerak jakin izan du batuketa eta batasunean oinarrituriko prozesua garatzen. Hiru milioi biztanleko herrialdean (Euskal Herriaren parekoa), alderdi, sektore, eragile eta pertsona ugari osatzen dute Fronte Zabala; tupamaroak, Alderdi Komunista, Alderdi Sozialista edo alderdi kristau-demokrata, eta horiekin batera beste asko.

Oposizioan, Gobernuan eta oposizioan berriz ere, baina barne batasuna mantenduz. Beharrezkoak diren aldaketa estrukturalak burutzeko beharrezkoa da gehiago izatea, gero eta gehiago, gero eta handiago izaten jarraitzea. E egunik egongo ez den perspektibatik, begiradatik gaur irabazitakoa bihar gal zenezake. Prozesu ikuspegitik, amaierarik ez duen begiradatik barne ariketa bikoitza egin behar da etengabe: etxeok zaindu eta etxe handiagoa eraiki, biak aldi berean, batera, bata edo bestea sekula deskuidatu gabe. Bata ezin daiteke bestea ez egiteko arrazoi izan. Errazagoa da gauden tokian jarraitzea, kontraesanik gabeko bidea ibiltzea, iraultza egin beharrean iraultzaile bezala bizitzea (*Sarri dixit*). Hori ere erakutsi digute gure lagun tupamaroek. Bizitza bezala, borroka ere konplexua da.

Montevideon egon naiz duela gutxi eta aspaldiko partez. Plazera da beti. Hitzaz azaltzea zaila bada ere, herrialdea bisitatu dutenek badakite zertaz ari naizen.

Prozesu ikuspegitik, amaierarik ez duen begiradatik, barne ariketa bikoitza egin behar da etengabe: etxeok zaindu eta etxe handiagoa eraiki, biak aldi berean, bata edo bestea sekula deskuidatu gabe

Uruguaira doan euskalduna etxean sentitzen da maiz. Filtroko operazioa azalean tatuatua geratu zaigu, benetako elkartasuna zer den ikasi genuen eta ez dugu geroztik ahaztu. Kide eta lagun askorekin egon naiz, ohi bezala. Euskal Herrira bueltatu eta berri latzak gogor kolpatu nau. Omar Alaniz "Murmullo" hil egin dela dioen mezua jaso dut. Azken bidaia honetan bere etxean bisitatu nuen eta berarekin eztabaidatu eta konspiratu ere bai. Munduko toki askotan borrokan aritutako kidea, euskaldunen laguna, etxekoa. Umila eta, ezizenak ondo adierazten duen bezala, hitz gutxikoa, hitz apalekoa. Bagara Euskal Herrian gogoratuko zaitugunak. Egun handira arte! •

UKRAINA ALA SIRIA?

Errusiaren «gerra mota» ez da bi dramak hurbiltzen dituen kontu bakarra

Sirian matxinadak – eta ez gerrak, bata bestean agortu bazen ere– 2011ko martxoaren 15ean eztanda egin zuen Daraa hegoaldeko hirian, Baxar Al-Assaden erregimenaren polizia politiko beldurgarriak (Mujarabat) ikasle batzuk atxilotu eta torturatu zituenean.

Mutilen delitua institutuko harmailetan «Baxar, alde!» leloa idaztea izan zen. Daraa Damaskoko erregimenaren aurka gotorlekua izan da aspaldian eta 8oko urteetan Hafez al-Asaden aurka Anaia Musulmanek gidatutako altxamendua- ren epizentro bilakatu zen.

Baxarren aitak eta dinastiaren fundatzaileak odoletan ito zuen matxinada: bonbardaketek eta ondorengo errepresioak 20.000-40.000 hildako artean eragin zituzten (informazioa zehazteko orduan beti «oso iaioa» izan da Damasko).

JENDARTEA / Dabid LAZKANOITURBURU

Gerra bihurtu zen 2011ko Siriako matxinadaren oinarrian lehortekak eragin zuen gosea zegoen. Hamaika urteren bueltan Ukrainako gerrak ogirik gabe utzi ditu siriarrak. Errusiak Sirian ikasi zuen «modus operandi» berbera erabili du Ukraina bonbardatzeko orduan. Ondorioa, milioika errefuxiatu, Ukrainan eta Sirian.

Dudarik gabe, 2010eko abenduan Tunisian eztanda egin zuen matxinadak –kale saltzaile batek, Boazizik, bere buruaz beste egin zuen su emanez, polizia korruptoaren jazarpenarekin nazkatuta– eragin zuzena izan zuen Daraan hasi eta Siria osora hedatu zen herri altxamenduan. Izan ere, arabiar mundu osora hedatu zen Uda-berri Arabiarra ezizenarekin baitaiatu zuten altxamendua, Alje-

riatik Bahraineraino, Libia, Egipto eta Yemen ahaztu gabe.

Guztietan, boterearekiko haserrea eta etorkizun faltak sortzen duen ezinegona zegoen oinarrian, baina herrialde bakoitzean ezaugarri propioak izan zituen eta baldintza ezberdinek bultzatuta sortu eta garatu zen matxinada.

Siriako kasuan –ez bertan bakarrik, baina bai era esanguratsuan–, aurreko urteetan he-

rrialdeak pairatu zuen lehortekak izugarritzko eragina izan zuen matxinadan.

JATEKO OGIRIK ERE EZ

Herrialdean gehiengoa osatzen duten nekazari suniek ez zuten jatekorik eta hiri handietara, batez ere Damasko hiriburura, abiatu ziren etorkizun bila.

Sikateak al-Assaden gobernuak aurreko urteetan abian jarri zituen murrizketekin eta politika neoliberalarekin kointziditu zuen. Dinastia bera eta erregimenaren sostengua gutxiengo xiiakoak (alauia) izanik, hasiera-hasieratik matxinadak kutsu erlijioso-komunitarioa izan zuen, gehiengo suniaren eta gutxiengo xiiaren arteko liskarrarena, hain zuzen. Horrek matxinadaren bilakaeran izugarritzko eragina izango zuen hurrengo urteetan.

2011. urte hasiera matxinadarako «ekaitz perfektua» izan zen. Milioika nekazari suni eta

Kharkiv Ukrainako bigarren hiri handiaren eta Alepo Siriako hiriburuko ekonomikoan Errusiaren bonbardaketaren eragina. SERGEY BOBOK, YOUSSEF KARWASHAN/ AFP



haien familiak Damaskoko hiri inguruan bildu ziren, ekialdeko Ghuta auzo erraldoian adibidez, Alepon, Homsen... baldintza ja-sangaitzetan.

Ondorengo gerran tamalez famatuak izango ziren eremu horiek. Izan ere, gosez eta etorkizun egarriz, herri txiroenak bat egin zuen matxinadarekin, ez proiektu politiko alternatiborik zuelako, gogaituta zegoe-lako baizik, Gobernu alaiuak mespretxatu egiten zuelako eta Damaskoko klase ertainaren aldetik eta aberats sunien aldetik –Al-Assadekin ituna sinatu zuten Asma Fawazen ezkontzarekin– ez zutelako inolako babesik.

MATXINADATIK GERRARA

Matxinada ia Siria osora hedatu zen, Rojava eskualde kurdura eta Latakia assadtarren jaioterri aldera ezik. Ogia, demokrazia eta erregimenaren amaiera exijitzen zuen jendeak. Alaiuen gidaritzapeko Armadak tiroka erantzun zien manifestariei eta matxinada bera militarizatuz joan zen apurka-apurka baina etengabe. Alde batetik, erasoan aurreko erantzun gisa –batzuen ustez gerra 2011ko uztailean hasi zen matxinatutako militar talde batek Armada Libre Askea sortu zuenean– baina bestetik, inguruko potentziek bultzatuta.

Saudi Arabiak eta Emirerriek ez zuten inolaz ere matxinadak Sirian irabazterik nahi (Bahrainen itzali berria zuten gehiengo xiaren altxamendua). Nahiago zuten matxinada eta erregimena odolustea eta, horretarako, Irakeko Al Qaeda koei eta Siriako talde salafistei armak eman zizkieten. Azken hauek kalean ziren, erregimenak berak matxinadaren erdi-erdian askatzea erabaki zuelako. Deigarria.

Matxinada gerra bilakatu zen eta Siriako gerrak bizirik jarrai-



Mutil hau ez da ukrainarra, siriarra baizik, eta Idlib matxinatuen azken gotorlekuan «bizi» da. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

AFRIKAN ERE GOSETEAREN ATARIAN

Siria ez da Ukrainako gerraren egoera pairatzen ari den herrialde bakarra.

Errusia eta Ukraina munduko aletgia dira eta, ondorioz, zerealen hornidura faltak sekulako eragina du hainbat herrialdetan. Txiroenetan goseteak eta matxinadak espero dira.

«Gerra hau ez da Ukrainan geratzen eta jende eta herrialde ahulenak gogor astinduko ditu», ohartarazi du Antonio Guterres Nazio Batuen Erakundeko (NBE) ordezkari nagusiak. Gerra aurretik egoera nahiko larria zen pandemiaren ondorioz inflazioak gora egin ostean. Baina orain «haien aletgia» bonbardatua izaten ari da», salatu du Guterresek. Izan ere, Afrikako 45 herrialdek gariaren herena Errusiari eta Ukrainari erosten diete, eta hauetatik 18 (Burkina Faso, Egipto, Kongoko Errepublikak Demokratikoa, Libano, Libia, Somalia, Sudan eta Yemen) gerran dauden herrialdeen zerealen mende daude %50ean.

«Gariaren falta desegonkortasunaren hazia landatzen ari da mundu osoan», ohartarazi du NBEren ordezkari nagusiak, eta dei egin dio nazioarteari «gosearen

urakana eta munduko elikadura sistemaren porrota ekiditeko».

Elikadura eta Nekazaritza Erakundeak (FAO) eta Elikagaien Mundu Programak (EMP) gerrak mundu osoan izango duen eraginaz ohartarazi dute. Izan ere, gosea pasatzen duen jendearen kopurua goigoian zegoen pandemiaren, larrialdi klimatikoaren eta munduan dauden liskarren ondorioz.

2021eko datuen arabera, 811 milioi goseak joaten ziren gauero ohera, munduko 10 biztanletatik bat, eta 44 milioi gosetearen atarian zeuden.

Gainera, 2022ko hasieran, EMPk eta FAOk munduan 20 gose eremu gorri zeudela ohartarazi zuten, tartean Etiopia, Nigeria, Hegoaldeko Sudan eta Yemen. Guztietan gerrak eta liskarrak daude.

Errusiak eta Ukrainak munduko garagarraren %19 ekoizten dute, gariaren %14, artoaren %4 eta zerealen esportazioen herena bertatik ateratzen da. Koltzaren hornitzaierik handienak dira, gainera, eta ekilore olioaren erdia saltzen dute. Errusia, gainera, munduko ongarrrien ekoizlerik handiena da.

tzen du 2022. urte honetan. Dagoeneko 610.000 dira hildakoak, horietatik 161.000 zibil –25.000 haur–. 6,6 milioi siriarrak erbestean daude eta beste hainbestek etxea utzi egin behar izan dute gerratik ihesean eta Siriako beste lurraldeetan babesa bilatuz.

Oposizioan dagoen Giza Eskubideen Siriako Behatokiak eman dituen zifrak izugarriak dira. Baina Ukrainako gerrak eragin zuzena du Siriak bizi duen egoeran. Errusiak Ukraina inbaditu aurretik egoera ekonomikoa kritikoa zen eta asko ziren egunero edozer jateko arazoak zituzten siriarrak.

GOSETERA SIRIAN

Oxfam Intermonek aste honetan bertan iragarri duenez, Europan ari duen gerrak jakien prezioak igo egin ditu eta 10 siriarratetik 6k ez dute nahikoa jan ahal izateko bermerik.

Izan ere, prezioak bikoiztu egin dira azken urtean, pande-

miaren eraginagatik eta ondoko Libano pairatzen ari den krisi ekonomiko izugarriagatik. Eta hori gutxi ez eta, hara non Europako eta munduko hainbat herrialdetako aletegi diren Ukrainaren eta Errusiaren arteko gerra...

Oxfamek Gobernuaren kontrolpeko eskualdeetan bizi diren 300 pertsona elkarrizketatu ditu eta horietatik %90ek onartu dute ogia, arroza eta batzuetan barazkiak besterik ez dutela jaten.

«Egoera jasangaitza da eta jendea amildegia ertzean dago. Damaskoko inguruetan orduak eta orduak ematen ditu jendeak Estatuaren okindegitan ogi merkeagoa erosteko. Bitartean, haurrak jateko hondakinak bilatzen saiatzen dira», deitoratu du GKEak Sirian duen zuzendariak, Moutaz Adhamek. Nolakoa izango da egoera Idlib matxinoen gotorlekuan edo milioika desplazatuaren artean...

Siriarren %90 txirotasunean bizi dira. %60k ez dute lanik eta gutxienez 25 eurora ere ez da iristen. Egoera hain larria da, non jatekorik izateko familiak zorpetu egiten diren edo alaba gazteak ezkontzera behartzen dituzten. Neska-mutilak eskolatik ateratzen dituzte lan egin dezaten eta eguneroko otorduak murrizten dituzte.

Siriak gari gehiena Errusiari erosten dio eta, gerra dela-eta, gobernu erreserbak mugatzen hasi da agortuko diren beldur, prezioak etengabe gora egiten ari direnean.

Oxfamek elkarrizketatu duen Halak dioen moduan, biharkoa bost axola egunerokoa bere familiarentzat mahaian jatekorik jarri ahal izango duen ez dakien. «13 ordu lanean ematen ditut egunero baina ez zaigu iristen. Egunak 24 ordu baino gehiago izatea nahiko nuke



gehiago lan egin ahal izateko. Akituta nago eta ez dakit gure familia egoera latz honi aurre egiteko gai izango den ala ez», dio etsita Majedek, Damaskotik gertu dagoen nekazari herri batean «bizi» den siriarrak.

2011ko matxinadaren oinarrian zegoen ogi falta bera pairatzen ari da herrialde arabiarra, Ukrainako gerrak larriagotu duen egoera.

Intermon Oxfamek dei egin dio nazioarteari Sirian babes soziala bermatzeko programak bultzatu ditzan eta gosetearen aurrean laguntzak azkartzeko.

Lehortearen eraginez, Sirian gehiengoa osatzen duten nekazari suniek ez zuten jatekorik eta hiri handietara abiatu ziren etorkizun bila. Ez zuten aurkitu eta matxinatu egin ziren

11 urte geroago, gerra ez da amaitu. Siriako matxinoen aurka egin zuen Errusiak Ukrainan egiten ari dena. Ondorioa beti berdina: errefuxiatuak eta gerraren logikaren garaipena

Lerro hauen gainean, errefuxiatu ukrainarrak. Ondoko orrialdean, siriarrak desplazatuak Turkiaren mugan. LOUISA GOULIAMAKI

«Hil ala biziko kontua da siriarrak askorentzat», ohartarazi du.

ERREFUXIATUAK HEMEN ETA HAN

Ez dago batere garbi nazioartekak Oxfami kasu egingo dion, batez ere gerra batean eta beste errefuxiatuen inguruan izan duen jarrera kontrajarria kontuan hartuta.

Hala ere, asko izan dira errefuxiatuen dramak Siriako eta Ukrainako egoerak bata bestearekin alderatu dituztenak, baina erabat desberdinak dira bi kasuak, behintzat hasieran.

Siriaren kasuan, erregimenaren errepresioa hasi zenean eta gerraren lehen urratsetan jendeak ez zuen arrapaladan ihes egin. Aitzitik, 2012ko martxorako 200.000 ziren etxetik ihes egin zutenak, baina ez zuten muga zeharkatu.

Handik urtebetera, 2013ko martxoan, matxinadaren bigarren urtemugan, milioi bat errefuxiatu zenbatu zituen UNHCR Iheslarietzako Nazio Batuen

Goi Mandatariak. Asko, baina...

Ukrainan, oster, astero milioi bat ukrainarrek herrialdeko mugak zeharkatu behar izan dituzte Errusiaren erasoetatik ihesean. Gerrak hiru aste bete dituen aste honetan 3 milioitik gora dira (adituak 4-7 milioira irits daitezkeela beldur dira).

Siriako errepide eta tren azpiegiturek ez dute zerikusirik Ukrainak behintzat eraso hasi zen arte zuenarekin eta ukrainarrentzat askozaz samurragoa izan da erbestera mugitzea.

Ukrainarrak, gainera, europarrak dira eta 3,5 milioi Europar Batasunera iritsi ziren etorkin gisa 2014-2019 bitartean. Bertan bizitzeko baimena dute, batez ere kualifikaziorik gabeko lanak betetzen dituztelako, baina bigarrena egina diete errefuxiatuei, asko senideak.

Siriarrak, ordea, Turkia, Libano, Jordania eta Irak zituzten hasierako helmuga, ez bereziki egonkortuak, eta Iraken kasuan benetan arriskutsua. Hala, bada,



ulergarria da Europarako bidea hartu izana 2015ean. Errusiak hiri eta herri matxinatuak airez erasotzeari ekin zion, Damaskoko erregimenari lagunduz. Al-Assaden miliziak suntsitutako eremuetan sartzen ziren odol-egarrarian eta jendeak ihes egin zuen ahal zuen herrialdera.

Estatu Islamikoaren gerrak, batez ere Kobane hiri kurduaren aurka, eragin zuzena izan zuen errefuxiatu kopuruan, batez ere Turkian, eta Ankarak Europarako bidean jartzea erabaki zuen (Kobanekoa zen Alan Kurdi itotako haurra, mundu osoa astindu zuen irudikoa).

Orduko Alemaniako kantzilerra, Angela Merkel, errefuxiatuak hartzeko prest azaldu zen eta horrek ere jendeari animoak eman zizkion Europarako bidea egiten saiatzeko.

Gero izan ziren gerokoak. Milioitik gora errefuxiatu iritsi ziren Alemaniara, baina Europako hainbat herrialdek, batez ere Txekiar Errepublikak, Hun-

gariak eta Poloniak, atak itxi zizkieten. Europar Batasunak gauza bera egin zuen eta Turkiarekin akordio bat sinatu zuen: mila milioi euroren truke, Ankarak mugak itxiko zituen eta Bruselak 160.000 errefuxiatu hartzeko konpromisoa onartu zuen. Agindutakoa ez du bete eta haietatik %20 baino ez da iritsi paperekin Europa.

Poloniak berak ate guztiak zabaldu dizkie anaia ukrainarrei, eta txalotzekoa da. Baina harri-garria da 2015ean siriarekin eta afganistandarrekin izan zuen jarrerarekin alderatuta. Gertuago, iaz Aleksandr Lukaxenko agintari bielorrusiarrak milaka kurdu mugara bidali zituenean, EBren zigorrerengatik mendekugisa, Poloniako agintariek ez zuten errefuxiatu bat bera hartu nahi izan eta 20 inguru hotzak jota hil ziren mugako basoetan.

«MODUS OPERANDI» BERA

Mundua gero eta txikiagoa da eta gaur etorkinen hartzaileak

direnak bihar errefuxiatuak izan daitezke. Eta atzo xenofobo hutsak zirenek elkartasunaren balioa deskubrituko dute, gertukoekin bada ere.

Gerrak ere gero eta antzekoagoak dira.

Errusiak Ukrainaren aurkako inbasioa hasi zuenetik, gero eta nabariagoa izan da Sirian aurrera eraman zuen estrategia militar bera errepikatzen ari dela.

Raphaël Pitti medikuak 11 urte bete ditu Sirian eta bertan bizi izan duena Ukrainan ikusten ari da. «Alepon ere hiru tempotan egin zuten 2016an: lehenik hiria setiatu, gero etengabe bonbardatu eta azkenean herri-tarrak goseak, egarriak eta hotzak jota errenditu zitezten itxaron», dio Estatu frantseseko osasun arloko UOSSM (Union des organisations de secours et soins médicaux) erakundearen arduradunak. Haren ustez, Errusiako boterearen logika «Sobietar Batasunaren zerbitzu sekretuen logika (KGB) da eta

norbanakoak ez du garrantzirik, soilik objektiboak».

Historiarekin jarraituta, medikuak argi du Errusiak Afganistango ikasgaiak barneratu zituela. «Hiri eta herrietan indarrez sartuz gero, gerrillaren erasoei bidea ematen diezu», gaineratu du. «Errusiaren egitasmoa alderantzizkoa da, etsaia hiri barnean itotzea».

Mariupol hiria jasaten ari den erasoek Sirian bizi izan zituenak ekartzen dizkiote gogora. «Han ere ospitaleei eraso egin diete. Sirian dozenaka osasun zentrori eraso zieten. Guk ordu-rako hutsik zeuden meategietara eramaten genituen ospitaleak baina errusiarrek bunkerren aurkako armak zituztela eta erabiltzeko prest zeudela ahaztu genuen».

«Ikaratuta, jendeak ihes egin zuten», gogoratzen du anestesista-erreamatzaileak eta gerrako medikuntzan adituak.

Alepon, Ghutan (Damasko inguruan), Daraan, 15 urte lehenago Groznyn moduan (Txetxenian), etsaia errenditu egiten zen eta, jendea miatu ondoren, porrota onartzen ez zutenek alde egin behar izaten zuten.

Siriak oraindik bizi duen drama pairatzen ari da Ukraina. Eta Ukrainako gerrak Sirian matxinada eragin zuten arazoak areagotu egin ditu: ogi falta.

Hori guztia gutxi ez eta, Errusiak Ukrainara Siriako paramilitarrak eramango dituela mehatxu egin du. Zurrumurruek diotenez, Al Qaeda izenean Damaskoren aurka borrokatzen ari diren txetxeniarrak ere Ukrainaren alde borrokan egitera joateko prest daude.

Errusiaren parte-hartzeak ez zuten herrialdearen arazo bat bera ere konpondu. Aitzitik, Ukrainan Errusiaren gerrak konponduko ez duen moduan. Itxaron, bestela.

EKIALDEKO HIZKUNTZEN LORALDIA?

Txinerari eta japonierari koreera batu zaie; gero eta gehiago dira hizkuntzok ezagutu nahi dituzten ikasleak

Ekialdea Mendebaldera begira jarri da, eta atzerriko bigarren hizkuntza bat ikasteko garaian ingelesaren atzetik frantsesa, alemana edo italiara gustukoenen artean zeuden arren, interesak aldatzen ari direla erakusten dute datuek; izan ere, gero eta gehiago dira japonierari eta txinerari hurbiltzen zaizkien ikasleak; are gehiago, orain arte estatistiketan ia agertzen ez zen koreerak interes handia piztu du.

2021eko "Duolingo Language Report" txostenaren arabera, mundu mailan hizkuntza hautatuenen artean bosgarren postuan kokatzen da japoniera, italiararen gainetik, eta Ameriketako Estatu Batuetan zein Erresuma Batuan bizkorren hedatzen ari den hizkuntza da. Aldi berean, hamargarren postutik zortzigarren postura igo zen iaz txinera, eta Brasil eta Mexiko bezalako herrialdeetan gehien hazten ari diren bost hizkuntzen artean kokatzen da.

Goranzko joera izan du koreerak ere, eta 2022. honetan ikasle kopurua handitzen joango dela aurreikusten dute iturri berberak.

Zer azalpen egon liteke, baina, datu hauen atzean? Zeintzuk izan daitezke Ekialdeko hizkuntzek Mendebaldean pizten duten interesaren arrazoiak?

David Martinez-Robles duela hogeit hamar urte baino gehiago hurbildu zen txinerara eta gaur egun irakaslea da Kataluniako Unibertsitate Irekian (UOC). Bere ustez, hizkuntza bakoi-

tzak ikasleak erakartzeko arrazoiak ezberdinak dira eta, txineraren kasuan, nagusiki arrazoi ekonomikoak eta enpresarialak izan arren, kulturari lotutakoak gero eta gehiago dira. «Mundu mailan arlo ekonomikoan duen kokapenari erantzuten dio, baina politikoki herrialdea hartzen ari den pisua ere kontuan hartzekoa da. AEBak eta Europa ditugu bi agente nagusiak, baina Txina paper garrantzitsua hartzen ari da joko politiko horretan eta horrek balizko ikasleen arreta bereganatzea eragiten du, subjektu aktibo delako». Azken egunotan Ukrainaren eta Errusiaren arteko gatazkan hartu duen paper aktiboa adibide bat baino ez dela dio UOCeko irakasleak.

Japonieraren eta koreeraren kasua bestelakoa da, batean zein besteak ekonomiak baino kulturak duelako pisu handiagoa Mendebaldeko arreta bereganatzeko orduan. Korearen kasuan, zehazki, pop korearra edo K-pop musika modan jarri izana, eta filmak eta telesailak aipatzen ditu Martinez-Roblesek. «Duela lau zehazki urte aipatu ere egiten ez ziren izenburuak gaur egun oso ezagunak dira». Adibide argina da "Squid Game" telesaila.

Politika eta ekonomia dira pisuzko arrazoiak, ados, baina zer leku du kultura txinarrak? Zer dakigu horren inguruan? «Azken bi hamarkada hauetan izan den ikasle gorakadak ahalbidetu du, nolabait, jende gehiago joan izana Txinara ikasketak egitera bera bati esker, edo lan egitera. Horrek, funtsean, esan nahi du ezagutza sortzen dela, eta

 **HIZKUNTZALARITZA** / Oihane Larretxea de la Granja

Atzerriko bigarren hizkuntza bat aukeratzeko garaian, frantsesak edo alemanak pisua galdu dute, eta ikasleak Ekialdera begira jarri dira. Txinera eta japoniera indarra hartzen ari dira eta orain arte ezzaguna zen koreera bidea zabaltzen ari da. Zailtasunak zailtasun, ezberdintasunek egiten dituzte erakargarri.

Bi emakume txinatar, jantzi tradizionala soinean. Txinako kulturak gero eta interes handiagoa pizten du Mendebaldean.
Noel CELIS | AFP

begirada berriak. Txinari eta bere kultura edo jendarteari buruz izan genezakeen ideia orokorrak orain nabardurak ditu. Hau guztia begi bistakoa da, adibidez, itzulpengintzan. Lehen oso liburu gutxi genituen txineratik itzuliak, eta

orain askoz ere gehiago dago, literatura bereziki –dio–. Txineratik gaztelaniara eta katalanera edo euskarara egiten diren itzulpen zuzenak gehiago dira».

Herrialdeaz dugun ezagutza «txikia» eta maiz «partziala» den arren, interesa handitzeak ezagutza areagotzea dakar. Hori uste du irakasleak. «Orain tresna gehiago ditugu horretarako; aukera handiagoak dira Txina hobeto ezagutzeko, modu erreal eta zehatzago batean behintzat. Gutxienez, modu anitzagoan. Herrialdea oso handia da, eta baldintza politiko bereziak daude, Europako estandarretara egokitzen ez direnak. Begirada batzuk kritikoagoak dira, beste batzuk



aldekoak... baina iritziak iritzi, pertzepzio gehiago ditugu, kultura hori ulertzeko modu gehiago, azken batean».

IDAZKERAN DATZA ERRONKA

Ikasketa prozesuari dagokionez, Martinez-Roblesek onartzen du beste hizkuntza batzuekin alderatuz gero erritmoa motelagoa dela; eta horren arrazoia, besteak beste, erreferentzia falta da. «Ingelesa hutsetik hasiko bagenu ere, nahi gabe jaso ditugu erreferentziak, eta gure egunerokoan hitz asko txertatuak daude. Txinerarekin ez da hori gertatzen».

Ahozko gaitasunari idazmena gehitzen zaio, eta hor dago irakaslearen aburuz, benetako

zailtasuna. «Idazkera oso bestelakoa da, ez du antzik guk Mendebaldean ezagutzen dugun ezerekin. Milaka eta milaka ikur daude, baina txinatarrek ere ez dituzte denak ezagutzen. Esan ohi dugu ikasle batek ondo moldatzeko 2.500 eta 3.000 *hanzi* artean ezagutu behar dituela, baina behin lehenengo mila ikurrik ikasita, hurrengoak ikasten errazagoa da, elementu asko errepikatu egiten baitira».

Aurreiritziak badira zailtasunaren inguruan, eta izan baditu, baina aditzera ematen duenez, euskararekin gertatzen den bezala, txinera beste zentzu batzuetan sinplea dela dio Martinez-Roblesek. «Bai euskara bai txinera munduko hizkuntza zailenen zerrendan agertu ohi dira, baina hizkuntza bezala ez da hain konplexua, batez ere gramatika egiturari erreparatuz gero. Ez dago aditz denborarik, ez dago generorik. Zailtasun handiena idazkeran datza».

KULTURATIK GASTRONOMIARA

Txineraren kasuan ez bezala, japonierara gerturatzeko arrazoiak kulturak eragindakoak dira, argi eta garbi. Takako Otsuki irakaslea da UOCen eta bere iritzi ezberdintasun horrek, gurearekin antzekotasunik ezak hain zuzen, egiten du are eta erakargarriagoa. Gero eta jende gehiago ari da hurbiltzen, besteak beste, manga eta marrazkiak eragindako interesak bultzatuta, umeen kasuan bereziki. Handitzen doazen neurrian animatu egiten dira hizkuntza ikastera, eta pixkanaka, beste arlo batzuekiko interesa piztu egiten da, gastronomia eta literatura, esaterako. Zailtasun horiek bultzatuta hurbiltzen diren ikasleak, oro har, hango komi-



Oinezko bat, Tokioko kaleetan. Japoniatik mundu zabalera hedatu dira, besteak beste, baina bereziki, manga, marrazki bizidunak eta gastronomia. Behrouz MHERI | AFP

kiak itzulpenen bidez irakurri beharrean jatorrizko hizkuntzan irakurri nahi dituzten pertsonak dira.

Azkenaldian izan duen gorakadaz galdetuta, bere iritzi asko lagundu du horretan pandemiak eta mugikortasun gabeziak edo mugatuak. «Gure ikastaro guztiak online dira, eta uste dut horrek zerikusia izan duela, jendeak egiteke zuen 'etxeko lan' gisa. Gainera, oztopo psikologikoak asko murriztu dira, eta gaur egun Interneti esker eta dauden baliabide ugari esker, errazagoa da ezagutzak bereganatzea».

Txinerarekin gertatzen den bezala, idazkerak badu bere mamia. Kasu honetan, *kanji*

izeneko karaktereetan oinarritzen da, eta zehazki zenbat dauden ezin du esan. «Milaka eta milaka», dio. Baina ez larritu. «Bi mila inguru dira egunerokotasunean erabiltzen direnak, eta aurreneko 500ak ikasten direnean ikasle bat gai izan daiteke japonieraz irakurtzen hasteko».

Estatu espainolera duela bi hamarkada baino gehiago heldu zen Takako, eta geroztik bere herrialdeaz eta hango jendeaz bertan dugun ezagutza asko aldatu dela dio. «Iritsi nintzenean enperadoreaz eta Yoko Onoz baino ez zekien jendeak», dio, barrez. Berak ere ez zuen uste Kataluniatik Dorae-mon ikus zezakeenik ere, eta harritu egin zen, onartzen duenez.

Japoniera ikasteko gogo duenari aholku bat ematen dio. «Hizkuntza komunikatzeko tresna bat baino ez da, baina benetako interesa badago, adibidez, marrazkiak jatorrizko hizkuntzan ulertzea, hori izango da helburua. Garrantzitsua da nora heldu nahi duzun argi izatea, horrek motibatuko zaituelako».

Asko, ume edo gazte direla hurbiltzen dira kultura japoniarrera, dela marrazki bizidunen dela mangaren bidez. Helduaroan heltzen diote hizkuntza ikasteko erronkari

Ekonomikoki Txinak duen pisuagatik, aspaldi du bere lekua txinerak atzerriko hizkuntza gisa. Azken boladan, ordea, arrazoi ekonomiko eta politikoei kulturalak batu zaizkie





Oier Gorosabel - @Txikillana
Fisioterapeuta

Zer nahiago, tratamendu eroso ala eraginkorra?

osasuna / hiriarren lo(r)aldia / hezkuntza

3 BEGIRADA:

Gerra garaietan fronte ikuspegia nagusitu ohi denez (zuriak/beltzak, onak/gaiztoak...), ikuspegi sinple hori baliatuko dut terapia fisikoa-ren «borroka zelaia» gaur egunean nola dagoen karikaturizatzeko. Frontearen lerro batean, azken urteetan indarrez sartzen ari den ikuspegi biopsikosozialaren (BPS) aldekoak ditugu: aspaldi baztertu xamarrek ziren teknikak berreskuratuz, ebidentzia zientifiko sendoaz lagunduta, eta beste osagileekiko elkarlana ezinbestekoa dela ulertuz, gure lanbidearen ikuspegia zaharberitzen ari dira, paziente bakoitzaren kasuari bere konplexutasun osoan helduz.

Beste aldetik, berriz, orain arte nagusi izan den ikuspegi zatikatua dugu. Horrela jokatzeko dutenak, berez, ez dira horren aldekoak izaten (kontrara: esango nuke gehienek ontzat ematen dutela osasuna jagotea diziplina arteko kontua dela) baina inertziaz eraginez terapia puntualak baino ez dituzte eskaintzen: pilulak, injekzioak, operazioak, manipulazioak, zuzenketak, aparatuek... Noski, interbentzio hauek askoz ere errazago saltzen dira BPS kontzeptu konplexuagoa baino. Eskainiez eskaintzen jendeari bi soluzio: bata erraza eta faltsua, eta bestea zaila eta benetako; eta ikusiko duzue lehenaren atean ilara askoz ere luzeagoak egiten direla, bigarrenean baino. Horrelakoa da gure espeziea, eta txerpolariek ederki baliatzen dute gure aje hau; osagile ofizial zein alternatiboek, gainera.

Horrenbestez, problema handia dugu: gaur eta hemen, BPS eremuan oinarritutako osasun asistentzia –hain emaitza bikainak ematen dituen– merkaturatzea oso zaila da. Erresis-

tentzia handia baitago, ez bakarrik osasun industrian, gizartean ere bai –hau da, pazienteetan–. Lan egiteko modu honek denbora behar du, motibazio eta prestakuntza egokidun osagileen aldetik; eta soluzio bizkorrak eta errazak nahi dituen gizarte honi ez zaio hori asko gustatzen. Baina jarraitu beharreko norabidea horixe da: seinale guztiek, letra larriz eta fosforitoz, ate hori seinalatzen digute. Nahiz eta jende guztia “soluzio errazen” (modako teknika miragarrien) ilaran egon, min kronikoaren eta laneko baja gehienaren arrazoiak gakoaren atea bestea da. Eta poliki-poliki, gero eta gehiago gara horrantz mugitzen ari garen osagileak.

Baina bide horretatik abiatzeak, praktikan, lan egiteko moduak aldatzea dakar; tratamendu konkretuez harantzago, terapia horiek nola eta zertarako erabili da gakoa. Horren barruan, pazientearekin komunikatzeko erak lantzeak berebiziko garrantzia du: enpatia, entzutea, irakastea, planifikatzea, azaltzea, demostratzea, errebisatzea, bere arreta norabide

egokira bideratzea, baleko portaerak indartzea, atxikimendua bilatzea, motibatzea, saritzea, animatzea, helburuak ezartzea, analizatzea... Hau guzti hau nekez lor daiteke arreta estandarizatu eredu batean; pazienteak ikasteko denbora behar baitu, baita osagileak ere irakasteko dauden zailtasunak gainditzeko. Baina zein erakundek, enpresak edo esponsorrek finantzatu behar du arnasa luzeko lan hau? Horiek ere emaitza bizkorren su artifizialen bila dabilta.

Gauzak horrela, BPS eredu gauzatzeko duten osasun unitateak oso urriak dira, eta populazioak zaila du bertara ailegatzea (kasu larrienak baino ez dira haraino heltzen). Egokira aldatzeko, gestio eredu zaharkituak gainditzeko apustu argia behar da, eta horretarako gakoa esfera politikoan dago. Administrazioak serio hartu beharko luke gai hau, sikiera gaizki enfokatutako tratamenduetan eta baja laboraletan alferrik gastatzen dituen miliaka milioi euroengatik bada ere. •

www.abante.eus



Ikuspegi biopsikosozialean oinarritutako osasun asistentziaren alde egin beharko genuke. GAUR8

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Egia, gerra garaian biktima, eta gerraostean borrero?

Oraindik gazteak ginela eta kazetaritzaren lanbidean hasi berriak ginela Irak inbaditu zuten Ameriketako Estatu Batuetako tropek. Lehen leherketekin batera ohar-tarazi ziguten adi-adi egotea komeni zela, hura izango baitzen telebistaz zuzenean etxerako salara ekarritako historiako lehen gerra. Zalantzarik baldin bazegoen, laster ikasi genuen telebistan ematea ez zela gardentasunaren pareko, kontrakoa baizik. Kameran eta estudioen beste aldean zeudenek guk ikustea nahi zutena ikusiko genuen, ez besterik.

Hala ere, garai hartan egia orain baino gehiago baloratzen zelakoan nago. Bomba hotsak orain zertxobait iparralderagotik heldu zaizkigunean, Ukrainatik, hasieratik argi genuen alde bateko eta besteko gerrako jauntxoak gezurretan lehiatuko zirela. Eta horrela gertatuko da gerra amaitu arte; zenbat eta lehenago, hobe, jakina. Egia ez da bakarrik horrelako gatazka baten biktima naturala, gero eta gutxiago interesatzen duen zerbaitek baizik. Ez da ikusteko, entzuteko, jakiteko... garai bateko grinarik antzematen. Eta gezur atseginak edozein egia deserosok baino arrakasta handiagoa izango duela ari gara egiaztatzen, egunero.

Kazetaria naiz, baina ez dut gerra kazetaritzaren apologiarik egingo. Horren atzean inpotentzia handia eta zenbaitetan faltsukeria pittin bat ere badagoela irudikatzen dut. Adibide negargarri bat ikusi dut pasa den igandean espainiar telebista kate batean, Donbass aldean grabaturik, ikuskizun hutsa, lotsagarri. Tiroketa eta bonbardaketen zurrunbiloan gutxi jakin eta gutxiago kontatu daitekeela sumatzen dut. Golkoko gerra hartan bezala, norbaitek sarrera eta irteera eman behar dizu. Erreportajeen eta kroniken kazetaritzan sinesten dut, hitz egin ezin dutenei ahotsa ematen dienean; baita analisisian ere, errealitateari testuingurua eta zentzua jartzen dionean. Baina egia, egitateak, ga-

rrantzitsuegiak dira berriemaile gutxi batzuen eskutian uzteko, oso ausartak izan arren. Hori nazioarteko erakunde handien erantzukizuna izan behar da, tresna egokiekin, independentziaz jokatu, baldintzarik gabe, bizia galtzeko arriskurik hartu behar izan barik. Nazio Batuentzako lana da, adibidez.

Nola jakingo dugu zer ari den gertatzen Mariupolen, oraindik ez badakigu zer jazo zen Groznin duela bi hamarkada? Ezta Moskuko Dubrovka antzokian edo Beslango eskolan ere, non zenbait egunez zuzeneko jarraipen informatibo handia izan zen. New Yorken irailaren 11n edo Madrilen martxoaren 11n ere ez, jakina. Ez bota errua polizia lerro baten atzean den kazetariari.

Egia da gerra baten lehen biktima, nola ez. Eta baita gerraoste batena ere. Txetxenian izan zen eta Euskal

NBE behatzaile egokia litzateke Ukrainan gertatzen ari dena kontatzeko, baina ez Madrilen; oraindik indarrean da 2004ko M11n onartu zuen 1530 Ebazpena

Herrian ere bai. Aipatu dugu NBE behatzaile ezin hobe izan litekeela Ukrainan gertatzen ari dena kontatzeko, ezta? Baina ez Madrilen; Segurtasun Kontseilua-ren 1530 Ebazpenak indarrean jarraitzen du, eta aho batez egozten dio ETari duela 18 urteko sarraskia. Euskal mugarrira da NBEko instantzia gorena halako akats historiko batera behartu izana, bai horixe.

Egiaren fede-emaile izan beharko lukeen beste erakunde bat Europako Legebiltzarra da. Baina datorren hilean, ustekaberik ezean, euskal kasuari buruzko hiru gezurren txostena onartuko du: ETaren indarkeria ez da bakarrik izan, honen kideek ez dute zigorgabetasunik (kontrakoa baizik) eta haien aurkako jazarpena ez da amaitu. Oso txarra da, bai, egia gerra baten biktima izatea, baina saihestezina da. Gerraostean okerragoa. •

APOROFOBIA EDO POBREZIARI BEGIETARA BEGIRATZEKO IKARA

Amagoia Mujika Telleria

Egunerokoa pausoak azkar ematen dira kale izkinan geldirik eta eskean dagoenaren albotik, gainerik. Pobreziari begietara begiratzeko ezintasuna da «aporofobia», pobreziari beldurra. Ikarazko begiratu hori beren azalean sentitzen dutenak aktore bihurtu dira eta oholtzara ekarri dute errealitate hain mingarria, hain erreal.

Aporofobia» hitza grezieratik dator; «áporos» baliabiderik gabea, txiroa, eta «fobia», beldurra. Pobrezian dauden pertsonak mespretxatu, arbuatu edo baztertzer daraman arrearritzia da aporofobia, pobreziari beldurra; segur aski, zehatzago, norbera pobrezian erortzeko beldurra. Horregatik, akaso, maiz herritarrek ez dute ikusten –edo ez dute ikusi nahi– kale izkinan eskean dagoena. Eguneroko bizitzaren erritmo bizian pasatzen dira herritarrak kalean geldirik dagoenaren albotik, gainerik, azkar joanda miseria ikusiko ez dutelakoan.

Joan den urtarrilean eman zuten hedabideek Rene Robert argazkilari suitzarraren heriotzaren berri. Egile sonatua Parisen bizi zen eta egunero iluntzean paseatzera ateratzen zen bere auzo jendetsuan. Egun hartako paseoa 84 urteko argazkilaria lurrera erori zen eta bederatzi orduz egon zen hantxe, espaloian, jendearen joan-etorrien erdian, hotzez akabatu zen arte. Bederatzi ordu horietan inor ez zen gerturatu lurrean zegoen pertsona horrengana, segur aski, etxerik gabekoa, txiroa, baztertua zela uste zutelako. Horregatik ez zuten ikusi, nahiz eta begien aurrean izan.

«Rene Robert argazkilariaren heriotza gertatu zenean, gu antzezlanaren prestakuntza ari ginen bete-betean eta zer pentsatua eman zigun. Urtero kalean bizi diren pertsona asko hiltzen dira. Inork ez du heriotza horien berri ematen, inork ez du haiengatik negar egiten. Bada une bat, egoera bat, inorentzat ez zarena existitzen. Horri buruzko gogoeta egiten dugu antzerki obran», azaldu du Garbi Losadak, «Aporofobia Stop» sormen proiektuko gidoigile eta bultzatzaileak. Ekimen horrek (duela egun gutxi Antsoainen estreinatua zen) gai horixe ekarri du mahai gainera: pobrezia edo etxegabetasuna ez dira pertsona baten ezaugarriak, arrazoi eta baldintza desberdinen ondorioz sortutako egoerak dira. Gaur



«Aporofobia Stop» proiektuan elkarlanean aritu dira Asinsound soinu enpresa, Bidebitarte mikrokooperatiba, Ados Teatro Konpainia eta Paris 365 jantoki soziala. Idoia ZABALETA | FOKU

egun, gainera, pobre izateko modu ugari daude; unibertsitateko ikasleak, lan prekarioak dituzten langileak, egun batetik bestera lanik gabe geratzen direnak... «Gaur egun herritar guztiak gara zaurgarriak eta edozein unetan geratu gaitezke ezer gabe eta pobrezia egoeran», esan du Losadak. Marra oso fina da, gaur hemen zaude eta bihar beste aldean. Akaso horregatik hainbeste aporofobia, inork ez duelako bere burua beste aldean irudikatu nahi.

Losadak azaldu duenez, «antzezlanaren kontatzen dugu bi pertsona mota daudela; herritarrak eta ikusezinak. Pobre break sartu eta atera egiten dira kolektibotik, baina kolektiboa ez da inoiz desagertzen, beti existitzen dira pobrezia egoeran dauden pertsonak. Batek egoera horretatik ateratzea lor dezake, baina beste bat sartzen da. Proiektu honekin hausnarketa txiki bat piztu nahi dugu. Askotan ez diogu begiratu ere

egiten kalean eskean ari denari. ‘Nik jateko bakarrik ematen dut’, ‘ez badu ezer egiten ez diot dirurik ematen’, ‘ez diot dirurik emango alkohola erosteko’... askotan entzuten ditugun gauzak dira eta horiei buruzko gogoeta bultzatu nahi dugu», jarraitu du.

«Aporofobia Stop» ikuskizuna “Giza Eskubideak Eszenara” izeneko proiektuaren baitan kokatzen da. 2016. urteko martxan dago ekimen hori eta arte eszenikoak jendartea eraldatzeko erreminta egokia direla proposatzen du. Baztertuta edo egoera zaurgarrian dauden kolektiboekin lan egiten dute eskuz esku proiektu horretan eta modu horretan piztu nahi dute giza eskubideen inguruko gogoeta kolektiboa. Losadarekin batera gidoia landu duen eta ekoizle lanetan aritu den Jose Antonio Vitoriak laburbildu du orain arteko bidea. «2016. urteaz geroztik gizartearen bazterretan dauden zenbait kolektibo-



ren gainean jarri dugu fokua. Bide horretan, adineko pertsonekin lan egin dugu, buru osasuneko arazoak dituztenekin, mendekotasunen ondorioz errehabilitatzen ari diren pertsonekin, bakarrik dauden adin txikiko migratzaileekin... oraingo honetan Iruñeko Paris 365 jantoki sozialeko erabiltzaile eta boluntarioekin egin dugu lan. Egoera ekonomiko zaila duen jendea da edo etxerik ez duena».

Azken sormen proiektua lankidetzaren baten emaitza da; Asinsound soinu enpresa, Bidebitarte mikrokooperatiba nafarra, Ados Teatroa antzerki konpainia eta Paris 365 jangela soziala aritu dira elkarlanean.

Lan egiteko moduak ere baditu berezitasunak. Vitoriak azaldu duenez, «elkarren ondoan eta berdinetik berdineara aritu gara lanean arte eszenikoetako profesionalak eta Paris 365 jangela sozialeko erabiltzaile eta hezitzaileak».

Aktore eta musikari profesional batek, hezitzaile batek eta sei nazionalitate ezberdinetako zortzi pertsonak (egoera ekonomiko ahulean edo etxegabetasunean daudenak) osatzen dute oholza gaineko taldea. Talde teknikoa, berriz, arte eszenikoetako profesionalek.

Diziplina desberdinen arteko josturerekin ondutako proiektua da, antzerki lengoia anitza darabilena; plastika,

«Giza Eskubideak Eszenara» ekimena tarteko, adineko pertsonekin, buru osasuneko arazoak dituztenekin, mendekotasunak dituztenekin edo bakarrik dauden adin txikikoekin egin dute lan. Orain, pobrezian daudenekin

Aktore eta musikari profesional batek, hezitzaile batek eta sei nazionalitate ezberdinetako zortzi pertsonak (egoera ekonomiko ahulean daudenak) osatzen dute aktore taldea. Talde teknikoa, berriz, arte eszenikoetako profesionalek

musika, performancea... «Kasu honetan diseinuak eta sorkuntzak ere parte handia daukate. Materialak birziklatu daitezke eta pertsonak ere bai. Ideia horretatik abiatuta, pentsatu genuen tailer bat antolatzea eszenografia egiteko. Zakarretara botatako altzariekin –Nafarroakoa Emaus Fundazioak bildutakoak– antzezlanean ikus daitezkeen aulki zoragarriak egin

zituzten tailer horretan. Kataluniako diseinatzaile Curro Claretren laguntza eta gidaritza izan dugu prozesu horretan. Horrela, Paris 365 jangela sozialeko erabiltzaileek sortutakoak dira pieza hauek eta horiekin osatu dugu antzezlanean eszenografia. Interesgarria izan da herritar horiei sortzeko espazio bat eskaintzea eta emaitza izugarri ederra izan da», azaldu du Vitoriak.

Guztira 46 aulkiko multzoa da, guztiak pieza bakarrak. Aulkiak salgai daude eta hortik ateratzen den dirua sormen proiektua finantzatzeko erabiliko da. Enpresek 300 euroan eros ditzakete eta partikularrek, 150 euroan.

IKUSEZINA IKUSARAZI

Myriam Gomez Paris 365eko gerentea da eta balio handia ematen dio «Aporofobia Stop» ekimenari. «Denbora asko daramagu zaurgarritasun egoeran edo etxerik gabe dauden pertsonen oina-



rizko beharrak ase nahian. Baina, era berean, denboratxo daramagu ikusezin bihurtzen ditugun errealitate horiek ikusarazteko ahaleginean. Ez dira errealitate ezdeusak edo ez ikusteko modukoak, baina ez ditugu ikusi nahi, hori da arazoa. Normalean gurekin egoten diren pertsonen gizartearen sarean eta kulturaren arloan parte hartzeko modua izatea gure erronketako bat da. Kulturaren eta antzerkiaren munduan dabilzan profesionalen laguntzarekin, pobrezia egoeran dauden pertsona horiek beren ahots propioarekin ikusiak eta entzunak izateko modua izatea sekulakoa da. Beren errealitatea kontatu, erakutsi, azaltzea garrantzitsua da, ezkutatua izaten den errealitatea delako. Egunero jantoki so-

zialean gurekin egoten diren pertsonen gauza asko dituzte kontatzeko».

Paris 365 jantoki sozialeko erabiltzaileek sormen prozesu osoan parte hartu dute, hasi eszenografiarekin, segi gidioiarekin, antzezlanaekin... «guretzat oso garrantzitsua izan da hori eta aukera berriak zabaldu dizkigu. Pertsonak ez dira pobreak, une batean pobrezia egoera batean egon daitezke, baina pentsatzeko, sentitzeko, sortzeko gaitasuna daukate. Proiektu hau horren guztiaren adibide bat da eta urrats garrantzitsua izan da guretzat».

ZEROTIK SORTUA, BIDEAN EGINA

Antzezlana egiteko modua ere berezia izan da. Ikuskizuna zerotik sortu da, aurretik gidoia landu gabe. Eszenara-

Eszenografiaren ardatza diren aulkiak birziklatutako materialekin egin dituzte Paris 365eko erabiltzaileek. Hartara, prozesu osoan hartu dute parte. Aulki horiek pieza bakarrak dira eta salgai daude.

Idoia ZABALETA | FOKU

Paris 365 jantoki sozialeko erabiltzaileek sormen prozesu osoan parte hartu dute. «Guretzat oso garrantzitsua izan da hori eta aukera berriak zabaldu dizkigu. Pobrezian dauden pertsonen pentsatzeko, sentitzeko, sortzeko gaitasuna dute»

«Aporofobia Stop» antzezlana Antsoainen estreinatu zen pasa den astean. Datozen hitzorduak: apirilaren 1ean, Beran; apirilaren 2an Cintruenigon; apirilaren 3an, Iruñean eta apirilaren 10ean Tafallan

tzea eta dramaturgia prozesu osoan zehar landu eta osatzen dira, partaideen ideiak, iritziak eta iruzkinak gehituz. Emaitza antzerki hizkuntza ez-konbentzionala duen ikuskizuna da, eduki bisual handia eta performancearen artearen eragina duena.

Sortzaileek nabarmendu dutenez, «etengabe eraikitzen ari den ikuskizuna da, aurrez pentsatutako klixek edo ideiak saihestea du helburu, eta elkarriketan, elkarreraginean eta aniztasunaren kudeaketan oinarritzen du sorkuntza».

Javier Asin arduratu da antzezlari musika jostez eta zuzeneko musika ere bere esku dago. Pieza guztiak originalak dira, espresuki lan horretarako sortuak. «Hasieran esan nien parte-hartzaileei arraro sentituko zirela, noraezean, prozesua zerotik hasten delako eta lehen urratsak zailak izaten direlako. Aurretik idatzita dagoen gidoi batetik abiatzea errazagoa da, bidean sortzen joatea zailagoa da. Parte-hartzaileek kontatzen dizkiguten bizipenek gidatzen gaituzte bidean eta emaitza oso ona dela uste dut. Esperientzia sekulakoa izan da, izugarri ikasi dugu eta aparteko jendea ezagutu dugu», esan du Asinek.

Garbi Losadarekin aritu da eskuz esku. «Niretzat interesgarriena pertsona hauekin elkarbizitza izan da. Batzuetan ematen du gure bizitza kontrolpean dugula eta egiazki denok oso zaurgarriak gara. Pobreziazi dagokionez, denok hor gaude, muga, 'titiriteroek' ederki dakigu hori. Gure lanbideari dagokionez, guk pasio handiz bizi dugu eta badakigu antzerkia terapeutikoa dela eta gauza asko mugitzen dituela».

«BIDE BAT EGIN DUGU ELKARREKIN»

Marta Antoñana Gorriti Paris 365ko langilea da. «Nora gentozen oso ondo jakin gabe etorri ginen. Antzerkiarekin zerikusia zuen zerbait zela bagenekien, baina ezer gutxi gehiago. Prozesu honetan parte hartzea izugarria izan da, aurreikuspen guztiak gainditu ditu. Gauza asko ikasi ditugu, antzerki konpainia profesional batek nola funtzionatzen duen ikasi dugu, antzezlana ba-

«DUINTASUNEZ ETA ERRESPETUZ BEGIRATZEA, GIZARTEAREN PARTE GARELA IKUSTEA, HORIXE NAHI DUGU»

«Nik ez nuen inoiz pentsatuko egoera honetan egongo nintzenik. Lana nuen, etxe bat, autoa, egonkortasuna. Baina bizitzak 360 graduko itzulia eman dezake eta beste aldean jartzen zaitu, ostiko batez». Iris Cardenas eta Dante Calderon senar-emazteak dira. Perutik Iruñera etorriak, Paris 365 jantoki sozialeko erabiltzaileak dira eta «Aporofobia Stop» antzezlaneko aktoreak. Cardenas duela bi urte etorri zen eta Calderon pasa den azaroan, bien semearekin. «Paris 365 jantokia oso garrantzitsua izan da. Oinarrizko beharrak aseta dituzunean, burua beste kezka batzuetara jar dezakezu, argitasun handiagoz gainera. Goseak eta hotzak ez dute ondo pentsatzen uzten», kontatu du Cardenasek. Hasieran bera hasi zen aktore lanetan eta senarrak lagundu egiten zion. «Etorri berria nintzen eta Iris laguntzera etortzen nintzen entseguetara. Azkenean neroni ere sartu naiz proiektuan eta oso pozik nago, esperientzia indartsua izaten ari da».

Sormen proiektuak erdigunean jartzen duen gogoeta ez da makala: nola begiratzen diogu pobrezia? «Pobrezia beldurra izatea giza ezaugarri bat da. Norberak daukan egonkortasuna galtzeak beldurra ematen du eta horregatik ez dugu arrisku hori ikusi nahi. Gu orain egoera txarrean gaude, marraren alde honetan, baina ahalegin guztia egiten ari gara hemendik ateratzeko. Baina badakigu, guri gertatu bezala, edozeini gerta dakiokela», esan du Calderonek. «Batuetan pentsatzen da egoera zaurgarria dagoen pertsona horrek zerbait egin duela gaizki, nolabait merezita balu bezala gertatu zaiona. Begirada hori hor dago eta oso mingarria da», gaineratu du Cardenasek.

Baina, nola begiratu pobrezia egoeran edo etxerik gabe dagoen horri? «Nahikoa da pertsona bezala tratatzea, lankide bati edo egunero ikusten dugun auzokide bati bezala. Ez begiratu errukiarekin, duintasunez eta errespetuz baizik. Agurtu, berdinetik berdineratatu, lagundu ahal den neurrian. Ez da bigarren mailako herritarra, egoera zail bat pasatzen ari den pertsona bat da».

ten atzean dagoen lan mordoa ikusi dugu... eta gure arteko harremanak ere asko estutu dira. Denbora asko eman dugu elkarrekin antzezlanak prestatzen eta lotura estua sortu da denon artean. Espero ez genuen tokira iritsi gara eta oso prozesu interesgarria izan da denontzat».

Dante Calderon, jantoki sozialeko erabiltzailea, aktorea da antzezlanean. «Bide bat egin dugu elkarrekin. Hasieran tokiz kanpo bezala geunden denok. Pixkanaka ulertu genuen hemendik, eszenatokitik, kontatu dezakegula errealitate bat: edozein egon daiteke bihar gaur gauden tokian, pobrezia egoeran. Nik antzerkia asko maite dut eta obra asko ikusi ditut hortik, ikusle bezala. Bizitzaren gorabeherak tarteko,

une batean nire bizitzak oreka galdu zuen eta lanik gabe eta baliabiderik gabe geratu nintzen. Antzezlan honetan parte hartzeko aukera eman digute eta asko indartu gaitu. Eta mezua hori da, gaur ni nago hemen, egoera zaurgarria eta baliabidez eskas, baina zu ere egon zaitezke hemen edozein unetan. Mezu hori eman ahal izatea garrantzitsua da guretzat».

Iris Cardenas ere pozik dago esperientziarekin. «Paris 365 jantoki sozialeko erabiltzailea naiz eta orain, aktorea. Niretzat esperientzia erabat berria izan da eta ahaztezina seguru. Beti eszenatokiaren beste aldean egon naiz eta lehen aldia da antzerki obra batean parte hartzen dudala. Ez da erraza izan lana eta entseguak bateratzea. Lan han-



Pobrezia egoeran dauden pertsonak ikusezin nola bihurtzen dira kontatzen du antzerki obrak, ikusleari zer pentsatua eman nahian.
Idoia ZABALETA | FOKU


dia egin dugu denok, ahalegin handia, eta espero dut emaitza publikoaren gustukoa izatea».

Batuetan pentsatzen da pobrezia egoeran dagoenaren premia bakarrak jatekoa eta lotarako tokia direla. «Egoera horretan zaudenean gehien behar duzuna duintasuna da. Ez zaizu dirua bakarrik falta, duintasuna falta zaizu. Nik ez dut inoren errukirik nahi, nik errespetua behar dut. Horrelako proiektu batekin gizartearen eta kulturearen parte zarela sentitzen duzu eta horrek duintasuna ematen dizu. Oso dibertigarria da antzerkia, aurretik sekula ez nuen pentsatuko hain ondo pasatuko genuenik. Oso pozik gaude», esan du proiektuaren parte den Ruben Saunierrek.



Alai
ZUBIMENDI

IRRITZIA:



IZAN ZIRELAKO

Artiumeko erakusketa batek «pentsatzeko leku baten» aldarrikapena berreskuratu du

📁 KULTURA / Xabier Izaga Gonzalez

«Pentsatzeko leku bat. Arte eskola eta praktika esperimentalak Euskal Herrian, 1957-1979» erakusketan artea eta hezkuntza harremanetan jarri zituzten 19 proiektu aztertu dituzte Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoak eta Jorge Oteiza Fundazioak. Ekainaren 5era arte ikusgai dira Artium museoan.

Pentsatzeko leku bat. Horixe bilakatu da Gasteizko Artium museoa bost hilabetez. Arte praktiken eta hezkuntza eredu esperimentalen arteko harremanetan sakontzen duten proiektuak sustatzea helburu eta lehentasuntzat dutela, «Pentsatzeko leku bat. Arte eskola eta praktika esperimentalak Euskal Herrian, 1957-1979» erakusketa antolatu du Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoak Jorge Oteiza Fundazio Museoaren lankidetzarekin. 1957 eta 1979 artean sortutako 19 proiektu aztertu eta

ikusgai jarri dituzte A3 aretoan ekainaren 5era arte. Proiektuon ezaugarri nagusiak «hezteko asmoa eta artearen testuinguruan ikerketarako eta topaketarako espazioak sortzeko borondatea» dira.

Ikerketa Mikel Onandia, Rocio Robles Tardio eta Sergio Rubirak, erakusketaren komisarioek, egin dute, eta Xabier Salaberriak diseinatutako moduluetan egituratuta, denetarikoa laginak daude ikusgai: dokumentazio ugari, arkitektura, diseinua, gutunak, bideoak, liburuak, aldizkariak, kartelak eta zenbait artista handiren artelanak, hala nola Oteiza, Zumeta, Basterretxea, Ibarrola, Ruiz Balerdirenak... Patxadaz bisitatzeko moduko erakusketa, beraz.

Proiektu horietako eskultura eta margolan ugari dago ikusgai.
Raul BOGAJO | FOKU



Urtarrilaren 26tik, gainera, Artiumek bere erakusketan bildu duen Irungo Zine Klubaren “Begi trantsitibo bat” ikusgai dago.

ZERGATIK BI HAMARKADA HORIEK?

Berreskuratu dituzten hezkuntza proiektu horiek 60 eta 70eko hamarkadakoak dira gutxi gorabehera. Mikel Onandiak dioenez, aldi horren hasiera gerraosteko berreraikuntza nazionalaren lehen zantzuek zedarrizten dute. Jorge Oteiza, bere esperientziaz aldian, artista-egiteko sozial eta politikoz hausnartzen hasi zen garaian. Ordurako Oteiza Basterretxearekin zentzu bereko ekinbideetan hasita zegoen, baita Luis Peña Basurtok eta Angel Cruz Jaka Legorburuk bultzatutako Academia Errante izeneko herri unibertsitatea sortzeko saiakera ere, «zapalkuntza kultural eta politikoa-aren horman arrakala bat» egiteko helburua zuena. Horiek eta beste hainbatek pentsatzeko eta sortzeko leku bat bilatzen zuten.

60ko hamarkadan hainbat esperientzia abiatu ziren: Arte Garaikideko Euskal Eskola; Gaur, Emen, Orain eta Danok, hurrenez hurren Gipuzkoan, Bizkaian, Araban eta Nafarroan sortu ziren artista taldeak; Debako Arte Eskola; Aiako Lantegia; Adierazpen Askeko Lantegia, eta beste hainbat lan, ekimen eta proiektu esperimental, umeen formakuntza ez ezik artistena ere sustatzeko asmoa zutenak, gizarte berri baten formakuntza, alegia, eta aldi berean beste hainbat proiekturen abiapuntu eta erreferentzia izan zirenak.

70eko hamarkadan beste asko sortu ziren, hala nola Euskal Eskolatik zetozen Jose Luis

Zumeta, Rafael Ruiz Balerdi, eta beste batzuk, banaka baina ikastolekin harreman zuzenean lan egiten zutenak, hezkuntza ikasgelatik ateratzeko asmoz eta herriaren parte-hartzearen bila.

70eko hamarkadaren amaieran, trantsizio politikoa delakoaren testuinguruan, instituzio berriak sortu eta hainbat ekimen esperimental bukatu ziren. Beste etapa baten hasiera zen. Bilboko Arte Ederren Goi Mailako Eskola fakultate bihurtu zen, geroztik euskal artisten erreferente nabarmena dena. Horrek mugarrizten du etapa horren amaiera eta, horrenbestez, Artiumeko erakusketak hartzen duen aldia.

OTEIZA, ARDATZA

Komisarioek diotenez, proiektu guztion ezaugarri da sisteman ez parte hartzea eta hezkuntza arautu edo ofizialekin bat ez egitea; «pentsatzeko le-



Arkitekturak eta diseinuak ere izan zuten lekua proiektuetan eta, beraz, erakusketan.
Raul BOGAJO | FOKU

kuak, aktibatuta egonez gero, aukeraz beteriko guneak bilakatzen direla adierazi nahiz bezala».

Eta denek partekatzen dute, halaber, «Jorge Oteizak topaketarako, prestakuntzarako eta kultura hazkunderako guneak izateko egin zuen aldarrikapena». Hain zuzen ere, erakusketaren helburua «Euskal Herriko jendearen hazkunde soziopolitiko, kultural eta intelektuala ahalbidetuko duten topaguneak sortzeko deiari erantzutea» da.

Oteiza da ardatza edo, Sergio Rubiraren hitzetan, nolabaiteko «bizkarrezurra». Baina ez protagonista bakarra, ezta nagusia ere, proiektuak berak baitira protagonista nagusiak.

Beatriz Herraiz Artiumeko zuzendariak proposatu zuen Jorge Oteizaren hainbat hezkuntza proiekturen gaineko ikerketa lana. Horretan hasita, ordea, Onandia Robles eta Ru-

bia konturatu ziren Oteiza ez zela funtsezko figura. «Zalantzarik gabe, erakusketa osoa zeharkatzen duen figura da», baina ikerketak aurrera egin ahala konturatu ziren, halaber, «hasieran oso indartsua zen bizkarrezur hura pitzatzen hasi zela gero, esperientzia horien estetikaren gaineko kontakizuna pitzatzen hasi zela», dio Rubirak. Eta beste kontaktuzun mota bat pentsatzen hasi ziren, beste protagonista batzuk ere bazituena, Oteizaren figura erraldoiarengandik aldentuak edo haren atzean gordeta zeudenak.

Rocio Roblesek ere badio Oteiza beti dagoela presente, batzuetan ikusgarriago, beste batzuetan bigarren planoan, baina beste izen batzuk ere nabarmendu beharra dagoela us-te du, beren proposamenari koherentzia emateko gauzak kontatu eta «berreskuratze» orduan, «foku ugaritasunak aberastu egiten baitu kontakizuna».

PENTSATZEKO LEKU BAT

Edonola ere, artista oriotarraren “Quosque tandem...!” eta “Ejercicios espirituales en un túnel” liburuak berrirakurriz topatu omen zuten kontatu nahi zutenaren gakoa, erakusketari izenburua eman ziona: pentsatzeko lekua.

«Guk ezin dugu ikerketaz hitz egin, ez baitugu ez elkartzeko tokirik, ezta pentsatzera biltzeko leku sinple bat ere», dio Jorge Oteizak “Quosque tandem...!” lanean, eta aipu berean elkartzeko eta hezteko gune baten aldarrikapena dago, ‘hezigarri’ kontzeptua, erakusketak bezala, zentzu zabalean ulertuta, «ez eskolari bakarrik dagokion kontzeptu gisa».

Izan ere, Onandiaren iritzian, hezkuntzaren zabalkundea oso



ideia oteizaterra da, eta diseinu, ikus-entzunezko, arkitekturen proiektu eta abarretan ikus daiteke. «Pentsatzeko leku hori ez da eskola bat bakarrik, ikastola bat proiektu nazional gisa izan daiteke, espazio berri bat behar duena, plaza publikoa, topagune izango den parke bat, eskultura eta artelanak bilduko dituen, erakusketa areto bat izango duena eta atzean hezkuntza proiektu bat duena». Beraz, euren erronka zen, Roblesek dioenez, «nola ekarri ikastolak, edo plaza bat, esate baterako, Durangoko Ezkurdi plaza, diseinu industrialak edo altzari modernoak erakusketa batera, tesi bihurtutako hipotesi honetara».

Erakusketa argudiatuta dago haien ideia, pentsatzeko, lan egiteko eta hitz egiteko leku horiek. Hitz egiteko, baina ez artez bakarrik, «funtsean proiektu politiko eta sozial bat baitago, alderdietatik harago,

antolaketari dagokiona: eskola bat, unibertsitate bat, arte irakaskuntza berritzea. Pentsatzeko leku hori polisemikoa da».

KOMUNITATEA SORTZEKO ASMOA

Oro har kulturak lotutako proiektuak dira, modu konkretuago batean arteak lotutakoak, edo haietako asko hizkuntzak, Rubirak gogoratu duenez. «Berreskuratu beharreko proiektuak, aldarrikatzekoak».

Proiektu mota bi daude, batzuk pertsonalistagoak, autore batenak, eta ezagutza partekatuz mintzo diren proposamenak, komunitatea sortu eta zabaltzeko asmoz. Jakintza partekatuen komunitate horren adibide dira Debako Arte Eskola, Aiako Lantegia eta Andatzako Eskola, besteak beste.

Pentsatzeko leku horiek, baina, ekintzetara, ekoizpena igarotzeko gune ere badira. Rubiraren ustez, Euskal Herrian sortu ziren ereduak, gero

beste leku batzuetan jarraituek, pentsatzeko eta ekoizpenerako lekuarekin zerikusia zuten. Horien erakusgarri, Aiako Lantegian edo Debako Eskolan bertan jatorria dutenak. «Instituzionalizatu gabeko proiektuak ziren, eta nabarmentzeko moduko beste ezaugarri bat, hain zuzen ere, autogestioa da; beste bat, herritarrei lotuak izatea, nola herritarrak beren burua antolatzeko gauza diren, esate baterako, Errekaldeberriko Herri Unibertsitatea sortzeko; zapal-

Erakusketaren helburua «Euskal Herriko jendearen hazkunde soziopolitiko, kultural eta intelektuala ahalbidetuko duten topaguneak sortzeko deiari erantzutea» da

«Instituzionalizatu gabeko proiektuak ziren, eta nabarmentzeko moduko beste ezaugarri bat, hain zuzen ere, autogestioa da; beste bat, herritarrei lotuak izatea»

Garai hartan arte eta hezkuntza munduan erreferentzia izan ziren hainbat liburu.
Raul BOGAJO | FOKU

kuntza urte haietan nola herri mugimenduak funtzionatzen zuen».

IZAN ZIRELAKO...

Ikertu dituzten proposamenak ez dira dauden guztiak, baina «daudenak oso esanguratsuak dira urte haietan Euskal Herrian garai hartan zer gertatzen zen azaltzera gerturatzeko», dio Roblesek. «Euskal Herriko kultura eta artearen aldi baten berrikusketa lana da». Erakusketa historikoa izan liteke, beraz, etapa historiko bat aztertzen duen aldetik, baina gaur egun gertatzen diren gauza askoren sorrera garaia ere izan zen. Adibide modura, Koldo Larrañagak 1978an egin zuen film nahiko ezezagun bat aipatu zuen Onandiak, Gasteizko Olabide ikastolaren eta Arabako euskararen egoeraren gainekoa, eta gaur egunetik ikusita, ibilbide baten garapena; edo ondorengo artista plastikoek erreferentzia izan dituzten Arte Garaikideko Euskal Eskolako kideak. Beste horrenbeste esan liteke hezkuntzari dagokionez, orduko proiektuen nolabaiteko segida direnak. Azken batean, erakusketa honek gauza asko azaltzen dituen garai baten berri ematen du.

Beharra, premia zegoen momentu haiek aztertzeko, momentu politiko zail batean premia horiei aurre egiteko «nola barrutik beren burua hornitu zuten», ikerketa egiteko materialak, artxibategi horiek guztiak berreskuratu ahal izateko, aztertutako kasuetako protagonistek material horiek gordetzeko egin zuten ahalegina nabarmendu beharra dagoela dio Rocio Roblesek, «horregatik ikertu ahal izan baitugu eta erakusketa areto batera ekarri».



Gorka Etxebarria Dueñas
Historialaria

Sorgin ehiza

Ohitura dut sukaldean nagoenean podcastak jartzea. Oso ondo pasatzen dut eta asko ikasten dut, adibidez, Isa Calderon eta Lucia Lijtmaer entzuten. Kasualitatez, aurrekoan, azkenaldian lantzen ari naizen gai bati buruz aritu ziren, Martxoaren 8aren inguruko asteetan bereziki gai interesgarria dena: XVI. eta XVII. mendeetan egin zen sorgin ehiza.

Bidenabar, aipatu nahiko nuke ez dela batere ezaguna martxoaren 8a Emakume Langileen Nazioarteko Egun izendatzea Errusiako Iraultzaren ondorio dela. Izan ere, egun horretan hasi zuten emakumeek greba, Errusiako tsarraren abdikaziora eraman zuena 1917ko otsaileko iraultzan. Lehenago, emakume langilearen egunak ez zuen data zehatzik, otsailean ospatzen zen eta, irakurleak entzunda edukiko duenez, 1918ko otsailera arte Errusian egutegi juliotarra erabiltzen zuten. Horregatik gertatu zen otsaileko iraultza gure martxoan eta urriko iraultza azaroan. Errusiako Iraultzaren abiapuntua eta emakumeek hasitako greba, beraz, elkarrekin doaz eta horren memoria ere bada Martxoaren 8ko eguna.

Esaten nuenez, sorgin ehiza gutxi ezagutua den fenomeno da, nahiz eta dimentsio izugarriak izan zituen feminizidioa izan zen, urte askotan luzatu zena. Lehenago ere balizko sorginen aurkako epaiketak egon ziren arren, XVI. eta XVII. mendeetan proportzio beldurgarria hartu zuten. Ezagutzen dugunaren arabera, 50.000-100.000 emakume artean exekutatu zituzten European, sorginkeria leporatuta (baita zenbait gizon ere, esaterako, hirurogeita hamabost emakumerekin batera Lapurdin exekutatu zituzten bost apaizak).

Ehiza eta histeria kolektibo horren testuingurua

Errenazimentuan eta erlijio erreformen garaian indartu ziren genero rola izan ziren. Humanisten arteko emakumeen izatearen inguruko eztabaida intelektualean, emakumezkoak gutxiago zirela defendatzen zutenek izan zuten arrakasta, zenbaitek kontrakoa defendatu arren. Besteak beste Amaia Nausiak azaltzen duen bezala, erlijio gatazkek emakumearen aurkako diskurtsoa indartu zuten: protestanteek ezkontza eta senarraren/aitaren autoritatea indartu zituzten eta katolikoek zelibatua azpimarratu zuten, emakumeek elizgizonak kutsatzen zituztela adierazten zuena modu inplizituan.

Errenazimentuaren testuinguruan, nahiz eta jendartearen garai hari buruz dugun irudia bestelakoa den, jazarpena eta norbanakoen kontrola areagotu ziren. Emakumezkoen kasuan, zenbait neurri ekonomiko gain (adibidez gremioetatik kanporatu zituzten) aipatu eskala handiko hilketak egon ziren. Batez ere emakume txiroak zigortu zituzten, hau

da, defendatzeko eta kontaktu egokiak edukitzeko aukerarik ez zutenak. Sorginen aurkako ehizak lortu zuena, funtsean, emakumeak gizarte misogino batera bortxaz egokitzea izan zen. Belaunaldiz belaunaldi hedatutako beldurrak emakumeen artean izaera eta praktika sumisoak eta mendeak indartu zituen. Izan ere, oso presente zegoen sorgina izateaz akusatua izateko arriskua.

Beraz, emakumeen mendekotasuna ez dugu tradizio sekular bezala ulertu behar, edo aspaldiko gizarte atzeratuen ezaugarri bezala. Emakumeen zapalaketaren atzean benetako mugimendu errepresiboak gertatu ziren eta horiek ezagutu eta ulertzeak gaur egun emakumeen askapenerako aliantzak errazten lagun dezake agian. •



Ilustrazioa: JONBI EGURTZEGI

{ koaderno } **Amaia Nausia Pimoulier**

Guraize efektua

Orain dela denbora gutxi entzun nuen lehen aldiz “guraize efektua”-ri buruz hitz egiten. Dirudienez, lehen maila akademikoetan emakumeen presentzia handia da, baina karrera akademikoan gora egin ahala, emakumeen kopurua nabarmen jaisten da. Hala, ohikoa da giza zientzien ikasketetan neska gazte asko aurkitzea, portzentuak mutirik baino gehiago; aldiz, gutxi iristen dira doktoretza egitera, eta askoz gutxiagok garatzen dute ikerketa karrera luzea. Gauza bera gertatzen da unibertsitatean, emakumezko ikasle ugari aurkituko ditugu, eta gero eta gizonen irakasle titular gehiago egonen dira. Katedradun gizonen eta emakumezko katedradunen arteko proportzioari dagokionez, desberdintasuna askoz handiagoa da. Laburbilduz, “guraize efektuak” adierazten du unibertsitateko karreraren lehen etapetan emakume gehiago daudela, eta erantzukizunetan eta karguetan gora egin ahala, gizonen kopuruak gora egiten duela.

Horrela, botere posizio horietatik beraiek aukeratzeko dituzte ikerketa gaiak, argitaratuko diren artikulak eta liburak, eta noski, ikerketa horiek burutuko dituzten izenak ere boterean dauden gizon hauek aukeratu dituzte. Ikerketa mundua eta akademia mundua endogamikoak eta androzentrikoak da zalantza izpirik gabe. Honek, noski, ezagutzaren eremu guztietan eragiten du. Nire kasuan, ezagutzen dudana izateagatik, argi dago historiografia tradizionala guztiz androzentrikoa dela. Historiografia horrek interes handiagoa izan du gizonen aktore nagusi izan diren gaietan, emakumeak itzalean protagonista izan diren espazioak bilatzen baino; horren erakusgarri ona da historiografiaren barruan historia instituzionalak edo militarren duen nagusitasuna, errege eta erregeen bizitzengatik, kanpaina militarrengatik edo erresumen bilakaera

politikoagatik kezkatuta dagoenak. Gerda Lernerrek “Patriarkatuaren sorrera” lanean (Katakarak) adierazten duen bezala, «emakumeek historian izan duten presentzia alde batera uztea edo gutxiestea genero indarkeriako beste modu bat baino ez da». Beste era batera esanda, emakumeen historia ezinbestekoa eta oinarrikoa da gaur egun emakumeen emantzipazioa lortzeko.

Horregatik aurre egin behar diogu “guraize efektu” horri, emakumezkoen presentzia botere esparruetan handiagoa izatea lortuz. Horrek ez du noski ziurtatzen historia bezalako eremuetan landuko den historiografiak genero perspektiba zainduko duenik –jakin badakigu genero perspektiba txertatzea ez dela emakumeak boterean egotea, baizik hor dauden ikuspegiak aldatzea–, baina aurrerapauso bat izan daiteke bide horretan. Beste modu batean esanda, gure historia kontatzeko moduan ere ez dugu eraginen eta gure emakume arbasoen

Aurre egin behar diogu «guraize efektu» horri, botere esparruetan emakumezkoen presentzia handiagoa izatea lortuz. Horrek ez du ziurtatzen, noski, genero perspektiba zainduko denik, baina aurrerapauso bat izan daiteke

memoria kolektiboaren berreskuratzeko ahalegina egin gabe geldituko gara.

Izan ere, gure iraganaren kontzientziarekin eta memoriarekin bakarrik jar daiteke gure oraina baliolan. Emakumeen, langile klaseko gizonen, disidente sexualen edo pertsona arrazializatuaren iragana berreskuratzeko –oro har historian garrantzitsutzat jo den horretan presentziarik izan ez dutenak aintzat hartzeak– gure oraina pertzibitzeko moduan eragina izan dezake. •

Badira urte batzuk Ane Arruti Lopetegik (Zarautz, 1985) Arrutiko Intxaurrak bakar-kako proiektua martxan jarri zuela. Orain, ordea, musika ibilbidean beste urrats bat egin eta Keia taldea sortu du hiru oñatiar lagun dituela: Iñigo Ibarondo, Iker Martinez de Zuazo eta Egoitz Olalde. "Erregaia" debuteko diskoa kaleratu berri dute.

Debuteko lana bai, baina musika kontuetan debutariak ez, esperientzia dezente duten musikariak zarete.

Esperientzia gutxiena nik dut, egia esanda. Bakarrik bai ibili nintzela garai batean eta talde bezala lehen esperientzia da. Beste hirurek bizitza osoa daramate proiektu desberdinetan eta talde potenteetan sartuta.

Zuk, esaterako, umetan eza-gutuko zenuen Latzen bezalako proiektu bat.

Oso ume harrapatu ninduen Latzen-ek. Gero gehixeago entzun nuen, baina zuzenkorik sekula ez nuen ikusi. Uste oraindik txupatxusak jaten genbiltzala ikastolako patioan.

«Badu» kantuan intro gozobat egiten duzue eta gero indarra hartzen doa. Mezuari dagokionez, bat hauskor bezain indartsu izan daitekeela iritsi zait.

Kantuek nik gitarra akustikoa-rekin sortutakoa dute oinarri

eta hemen hori nabari da, gero sartzen da potentzia guztia. Diskoan zehar ere mantentzen da intentsitate hori. Hitzei dagokienez, bizitzan jartzen dizkiguten etiketek eta kargatu behar izaten ditugun motxilek zenbat baldintzatzen gaituzten jakinda, horiek askatzeko beharraz hitz egiten du.

Segidan lehendabiziko aurre-rapen kantua dator, «Ez al zara zu?» deiturikoa. Begirada batekin komunikatzen dena

hitzetara zenbat kostatzen zaigun pasatzea, ezta?

Harreman askotan gertatzen den momentu konkretu bati buruz ari naiz hizketan. Ikusten duzunean dagoeneko harreman hori bukatu dela, baina galdera hori egitera ausartzen zaren uneaz ari naiz. Galdera egiten duzunerako gauza nahikoa garbi egoten den arren.

Onarpen hori zenbat kostatzen den.



«Edo nik zerbait egiten nuen edo ez zen inor etorriko salabardoa hartu eta ni salbatzera»

Bai, eta galdera egiten duzu, baina ez duzu erantzuna entzun nahi, baina iristen da une bat egin beharra dagoena.

Kantu hau behin eta berriz entzunda, R.E.M. taldearen kutsua hartu diot.

Uau, hori asko esatea litzateke. Ez dut haien diskografia oso-rik ezagutzen, disko batzuk bai, noski, baina loreak beti ongi etorriak dira.

Bai, kantu malenkoniatsua, gitarraren akorde horiek... Batez ere instrumentu horrek pisu handia hartzen du.

Ez da batere kantu azkarra, pausatua da eta pisutsua une batzuetan, iluna dela ere esan digute nahiz eta niri ez zaidan hala iruditzen, eta letrak ere eramaten zaitu malenkonia horretara.

Taldea, nola elkartu zen?

Nik banituen kantu batzuk urteetan pilatzen joandakoak eta banuen haiekin zerbait egiteko edo grabatzeko nahia. Baina argi neukan ez nituela aurreko formatuan grabatu nahi, ez nituen akustikoan edo soilean nahi. Instrumentazio gehiago nahi nuen abestientzat eta zalantzati ibili nintzen hainbat urtetan, eta ez bazara jartzen ez duzu egiten.

Halako batean, Iker Martinez de Zuazori komentatu nion eta bera laguntzeko prest agertu zen, berak esan zidan zein pauso eman, seriotasun gehiagorekin hartu genuen eta kantuek zer behar zuten bilatu genuen.

Hala, Egoitz eta Iñigorengana jotzea erabaki genuen. Nahiko bide naturala izan da; izan ere, Sharon Stoner taldekoak dira eta Ikerrekin lokala partekatzen dute. Bien baiezkoa jaso genuen eta kantu ba-

tzuk grabatzea zen hasierako asmoa, baina lokalean biltzen hasi ginenean gogotsu ginela ikusi genuen eta beste dena etorri da gerora.

Oñatin entseatuko duzuela pentsatzen dut. Joan-etorrian aritzea gogorra al da?

Eltziako lokaletan ibiltzen gara. Niretzako, entseatzeko eguna egun berezia izaten da. Gustura joaten naiz eta dagoeneko Zarautz-Oñati tartea begiak itxita ere egingo nuke. Entseatzea bada zerbait bete egiten nauena.

Erabili diren instrumentuen artean, ba al da sintetizadore-rik edo gitarraren efektuak baliatu dituzue?

Ia dena gitarrarekin eginda dago, baina bada abestiren batean melotroi bat, sintetizadorearen aurrekaria dena nolabait esatearren.

Xehetasun asko daude kantuetan, bai gitarran, bai baxuan eta baita baterian ere.

Egia da ni orain ari naizela diskoaz gozatzen, aurretik nirea egitera zentratu nintzelako. Orain ari naiz diskoari buelta batzuk eman eta xehetasun denak entzuten eta gozatzen. Sekulako konposizioak egin dituztela iruditzen zait.

Zuretzako ardura ere izango zen, zorientasuna gerora etorri bada ere.

Bai, noski. Orain pasatu delako, baina grabaketarako banuen nire kezka ea nire maila gutxienez iritsiko zen ikusteko. Hauek sekulako esperientzia dute eta nik banuen kezka hori. Pila bat lagundu naute bide honetan, esandako guztia ikasten eta xurgatzen saiatu naiz. Eta grabaketa bukatzean harrotasuna sentitu

nuen, nire gitarra guztiak nik grabatu nituelako eta gai izan naizela erakutsi diodalako nire buruari.

Kolaborazio pareta izan duzue «(H)ura gara» kantuan. Hitzak Jon Garmendia «Txuri-ya»-renak dira eta Andrea Lopetegik abestu du zure ondoan.

Twitterretik hartutako txio bat da Txuriyarena. Harremana dugu aspalditik eta orain berriz indartu dugu orduko harremana. Bi abestitako hitzak dira bereak. Andrea, berriz, lehengusina da. Sekulako potentzia du ahotsean eta ezagutzen ez duenarentzat, Mor-More taldean ibili zen, Managaitz taldean badabil eta sortu berri duten Ginger taldean ere bai. Nahi nuen gonbidatu diskoan parte hartzera, bakarka ibiltzen nintzen garaian Mor-More taldearekin batera asko ibili ginelako, eta kantu bat harentzat egokia bazen, hauxe zen, disko gogorrenetakoa delako eta marru batzuk egiteko egokia zelako.

Iñigoren konposizioak aipatu dituzu, eta nik onartu behar dut «Handitzen naizenean» kantuan harrapatu egin nauela. Baina denetarik du abestiak, gitarraren slide eta psikodelia ukituak, bigarren ahots berezia... Sortzerakoan eta grabatzerakoan zenbat buelta eman dizkiozue?

Kantuek, entzun daitekeenez, hasiera soila du oso. Esango dudan honekin baxu jotzaileek akabatu nahiko naute; izan ere, orain arte gainerakoei laguntzeko instrumentu bezala ulertzen nuen baxua; falta bada igartzen dela, baina bestela askorik ez. Eta konturatu naiz, eta barkatu berandu ohartzen banaiz, kantua oinarria ba-

ANE ARRUTI LOPETEGI

KEIA TALDEKO ABESLARI ETA GITARRA JOTZAILEA

Arrutiko Intxaurrak proiektuan bakarririk aritu zen eta bazuen taldearen babesean

kulunkatzeko gogoia. Keia da bere

proiektu berria, eskarmentudun hiru

oñatiarrek lagunduta abiatu duen bidea;

barrura begira, kanpora kantatuz.

Iker Gurrutxaga Zubimendi

«'Keia' hitzarekin barruan ditugun kezka eta ezinegonei egiten diegu erreferentzia, askotan identifikatzen ez ditugunak direlako baina 'keia' edo kea beti azaleratzen delako»




xuarena dela eta zenbat aldatu dezakeen kantu bat baxuaren melodiak, indarrak edo distorsioak. Abestia nahiko suabe zihoan, baina Ibarrondok bere proposamena gehitu zionean, dena lehertu zen.

Hitzek ere pisu dezente dute. Zer gertatzen da, heldu bihurtzen garenean zorientasunik ez dugula topatzen inon?

Gauzak beti gerorako uzten ditugula aipatzen dut kantuan. Zerbait gogoko dugunean, baina ez dugunean egiten okupatuta gaudelako. Horrez gainera, beste batzuen nahiei gehiegi begiratzen diegu gure desioei kasu egin ordez. Bada, 'handitzen naizenean' hori oso tipikoa da.

Segidan datorren «Berandu» kantua ere musikalki nolabait lotuta dago. Countryaren



ukitua, desert rocka, halako eraginak ditu. Iker Martinezek bere bakarkako ibilbidean lantzen dituen musiketara eramaten gaituzte. Zuk moldaketak nola ikusi dituzu?

Buelta batzuk eman genizkion "Berandu" abestiari, kostatzaigun honaino iristea. Hasi-

eran akustikoa dago, bi doinu bat bestearen gainean, eta gero elektrikoa sartzen da. Gitarrarik gabe geratzen naizen uea ere badago eta horra iritsi ginenean esan nuen: «Bai, hau da».

Ahotsen melodiak zuk sortzen dituzu edo konponketa

horiek musikariei egiten uzten diezu?

Ez da nik ez diedala uzten, baizik eta haiek niri lazo batekin oparitzen didatela lan hori guztia. Gero egia da zuzenekoetan Ibarrondok egiten dituela koroak, baina diskorako dena nik egin dut.

Armonia desberdinak bilatzen eta lan dezentea egin duzu hor bigarren ahotsetarako.

Bakarka ibiltzen nintzen garaian eta looperrarekin hasi nintzen garaian hartutako bidea da. Orduan landu nuen eta aspalditik gogoko izan dudan zerbait da ahotsak lantzearena.

«(H)ura gara» minimalista bazen hitzen aldetik, hau oraindik eta gehiago.

Galdera bakarra dago hor, ezta? Garai ilun samar bat izan nuen, identitate krisi bat edo 30etako krisia edo... Ama nintzen, musika banda bat sortzeko garaia pasatu zitzaidala eta halako kontuak nituen buruan. Anariren kantu batean, "Oreinak" abestian, «denborarekin 'oraindik ez' hura bihurtu zen 'honezkero ez'» entzun, eta parean jo zuela uste nuen.

Hortaz, nolabait ere nireak egin zuela uste nuen. Baina gitarra hartu nuen, looperrarekin hasi nintzen bueltaka eta momentuan esaldi hori sortu zitzaidan nire burua konbentzitzeko edo nik zerbait egiten nuela edo ez zela inor etorriko salabardoa hartu eta ni salbartzera. Bada, horri bueltaka hasi eta uste dut eman diodala buelta. Hortaz, terapia bezala nahi duenak har dezala eta bere terrenora eraman.

Metaforikoki arrainek hegan egin dezaketela esaten duzue, guran sinisten badugu edozertarako gai garela ere badiozu.

Bai, garai txarrak badirelako baina laguntzarekin edo laguntzarik gabe aurrera jarraitu beharra dago, zulotik irten-go bagara.

Anari aipatu duzu eta hau ere zure kantuetan erreferente

garbia dela esan dezakegu, ezta?

Nik ez dut hain modu argian ikusten, baina egon beharra du, asko entzun eta jarraitu dudalako, eta baldin badago, ez da txarra.

«Damua» eta «Oskolaren atzean» lotuta daudela esan dezakegu. «Damua» kantuan itxurakeria eta halakoak aipatzen dira eta «Oskolaren atzean» kantuan, berriz, eskola badugula baina barrutik hauskorak garelako esaten duzu. Barruari begira jartzeko moduko kantuak, biak ere.

Bietan desberdin baina ideia nagusi bera duten kantuak dira: azala eta mamia edo kanpora ematen dugun irudi gogorra eta barruko hauskortasuna. Gaur egun irudiak indar handia hartu du eta irudi bat ematen dugu, nahiz eta gero ez garen hori. Konturatu naiz gai horrekin badudala halako obsesio txiki bat.

Gure nerabezaroan Instagram eta halakoek harrapatu bagintuzten, auskalo gu ere nola ibiliko ginen.

Hitz hauek Instagram bera sortu aurretik idatzitakoak dira, gu garai hartan Fotolog webgunean ibiltzen ginen. Asko esaten ari naiz nire adinaren bueltan... Kantua idatzi nuenean, parrandan irteteko zer-nolako prestaketak-eta izaten genituen nuen buruan, itxura bat eman behar hori, nahiz eta gerora beste zentzu bat hartu duen. Baina konfirmatu egiten du nik neukan obsesio hori eta irudiari oraindik ere sekulako garrantzia ematen diogu barrukoari kasu gehiegirik egin gabe.

«Damua», gainera, igande goizerako uzten duzun gogo-

eta da, larunbat gaueko argazkiari begira jarrita egindakoa.

Bai, eskerrak garai hartan ez zegoen hainbeste kamera. Nahikoa lan izaten genuen gure aje emozionalarekin, gainera bideotan ikusi behar izateko ere.

Abesti honetan Iker Martinezek bere gaitasun guztia erakusten du gitarra jotzeko garaian. Zuk ere flipatuko zenuen hau aurrez aurre jo zizunean.

Bada, esango nuke sakakortxoarekin ateratako zerbait izan dela. Beste kanta batzuetan esaten nion zein rol nahi nuen izatea eta hemen esan nion protagonista izan behar zuela. Berari gehiegi iruditzen zitzaien, baina nik esaten nion bere errepertorio guztia behar genuela eta nik uste dut oso ondo geratu dela. Berak ez zuen ikusten kateatutako solo horiek guztiak jotzearena, baina bukaerarako lortu genuen.

Kantu-kontrakantu moduan ulertzen dira ahotsaren eta gitarraren artean egindakoak. Abestietan dauden geruza guztiak estudioan grabatzeko ondo aukeratu behar, ordea. Iñigo Irazokirekin izan zarete Atala estudioan, kantuak arintzeko eskatu dizue edo ondo neurtuta eraman duzue guztia?

Limitea grabagailuak jartzen zuen hemen, analogikoan grabatuta 24 kanal baino ez dituelako Atala estudioaren kasuan. Aurretik hori jakinda, dena ondo pentsatu behar da, ze lokalean grabatu dezakezu nahi adina kapatan eta dotore geratu, baina estudio honetan gero dena soildu egin behar da. Horrek gero zuzenekoetarako lagundu egiten du, nahiz eta nik estudioko lana eta zuzenekoak bi gauza oso desberdin bezala ulertzen ditudan.

Orokorrean ez daude erantsitako geruza gehiegi, oinarria elkarrekin batera joz gra-

batu genuelako. Horrek ere badu bere xarma: laurok elkarrekin eta gela berean grabatzean, zerbait erreala grabatzen ari zaren sentsazioa ematen du, gure akats eta guzti. Analogikoan grabatzean hori ere bai baitago, dena perfekzioz ateratzea zaila izaten da eta beti norbaitek akatsen bat diskoan sartzea onartu behar izaten zuen.

Diskoaren izenburua, «Erregaia», nondik dator?

Taldearen izena Keia jarri genuenez, harekin lotuta zihoan zerbait jarri nahi genuen diskoaren izenburu gisan. Buelta asko eman genion, eta azkenean egoki ikusi genuen “Erregaia” deitzea. «Keia» hitzarekin barruan ditugun kezka eta ezinegonei egiten diegu erreferentzia, askotan identifikatzen ez ditugunak direlako baina «keia» edo kea beti azaleratzen delako. Kasu honetan, erregaia kantuak dira, su horiei erregaia botatzen diegula-

ko berpizteko edo bizirik mantentzeko.

Hemendik aurrera, kontzertuak izango dira zuen erregaia, jakina.

Nahiko genuke, baina ez dago erraza. Bi eman ditugu eta gutxienez beste bi baditugu eta horrekin oso pozik gaude. Gu bezala beste talde asko ere horrela dabil, toki gutxi daudela eta egoera oraindik ere argitze bidean dagoelako.

Hurrengoa, Ginger taldearekin, martxoaren 25ean Getarian. Gaztetxe dotorea kontzertua emateko.

Urola Kostatik bertatik atera gabe. Getarian oso harreman onak ditugu eta horietatik tira egin dugu lehendabiziko kontzertu hauek emateko.

«Lehengoa udak hobeak ziren», Txuriyak egindako bigarren letra. Zu uda konkreturen batera eraman zaitu kantuak?

Ez, ez zitzaidan halakorik etorri. Momentua gozatzeko ditugun zailtasunen inguruan hitz egiten du. Beti lehengoa ona zen eta oraingoaz ez dakigu disfrutatzen eta momentua bizitzen eta daukagunarekin disfrutatzen ikasi behar dugula uste dut. GARAn idatzitako zutabe bat da, garai hartan bertan nintzen lanean eta bere zutabea maketatzea sarri tokatzen zitzaidan. Irakurri nuenean bazuen zerbait berezia eta melodia bat baren bueltak; testua eta melodia ondo ezkontzen zirenez, luzea bada ere, kantu hau atera zitzaidan.

Orain beste zentzu bat hartu duen arren, 2013an ere momentuaz gozatzeko esaten ari ginen. Hortaz, badakizue, momentuaz gozatu.





GAUR8 ireki gure leihoa

Zarautz Whatsappez

Joxean Agirre

Zarauzko Munoan nengoen emaztearen zain tarteka itsasoari begira eta tarteka bertan paseatzen zebilen jendeari erreparatuz, gionezko gazte bat pausoa luzatuz presaka etortzen ikusi nuenean. Mugikor handia zekarren eskuan eta mugikorraren pantailan neska gazte baten aurpegia sumatzen, burua zapi beltzez estalita zuela. Balastradara iristean, mugikorra altxatu eta Getariako San Antondik Mollarriko kargalekura doan paisaia ikusgarria erakutsi zion gizonak behin eta berriz. Neska berarekin bizitzera etor zedin konbentzitzen arituko zela pentsatu nuen eta bere helburua aise lortuko zuela, neskaren komentarioak entusiasmo handikoak baitziduditen. Beharbada kostaldekoa zen eta

gure hondartzari Asilah-koaren antza hartzen ziola esan ziezaiokeen edo mendialdekoa zen eta itsasorik ezagutzen ez bazuen, “zeru urdin eta zikin” bat zirudiela, edo bere lurraldeko poetaren baten esaldiren bat, poetak edonon jaiotzen baitira, baita belarrik jaiotzen ez den leketan ere.

Pare bat minutu egin zituzten itsasoaren eta malekoiaren kontenplazioan eta etorri zen bidetik desagertu zen gizona berriro, pausoa luzatuz eta presaka, beharbada herriko bi plazak erakustera, musikarena eta foruena, bi plazako herria baita hau. Une horretan bertan beharbada Ukrainatik etorritako iheslariak ere Whatsapp piztuta beren familiakoei gure herriko bazterrak erakusten arituko zirela pentsatu nuen. Oñatira etorri direnek,

esaterako, herriko plaza, Araozko Aitzulo edo Arantzazuko irudiak bidal zitzaizketen edo Getxora etorritakoek Ereagako hondartzara, Aixerrota eta Galeako labarrak.

Emazteak etorri gabe jarraitzen zuen eta Whatsappen kamerari sakatuta deituen. Luzerako zeukala esan zidan. Ea itsasoa ikusi nahi zuen galdetu nion eta hasi nintzaion Getariako San Antondik Mollarri bitarteko joan-etorriak egiten. Berak poesia irakurtzen du eta ozeanoari begira beharbada ahapaldi ederren batekin gogoratuko zela pentsatzen nuen. Baina ez zen horrelakorik gertatu. Ernegaturik begiratu zidan pantailatik. «Hobe zenuke txorakeriak utzi, etxera joan eta afaria prestatzen hasiko bazina», esan eta moztu zuen. •

Gureak eta demokraziaren aurkakoak

Xabier Izaga
Gonzalez

Asteon irakurri dudanez, Israelgo presidentek Turkiara egindako bisitak kezka sortu du Hamas mugimendu palestinarrean. Presidente turkiarra palestinarren alde agertu izan da, ulergarria Hamas eta AKP Turkiako Gobernuko alderdia Anaia Musulmanak antolakunde politiko islamistakoak baitira. Aspaldiko ezagunak.

Ez da inongo sekretua Mendebaldean musulmanak ez daudela ondo ikusita. 2012an Egipton Anaia Musulmanek irabazi zituzten hauteskundeak, eta 2013an estatu kolpe batek bota zituen boteretik, Mendebalde demokratikoa asaldatu gabe. 1991n Aljeriako hauteskundeak irabazi zituen FIS Askapenerako Fronte Islamiarrak, Anaia Musulmanek, alegia, eta

haien aurkako estatu kolpea egin zuten, Europaren onespenerekin, edo babesarekin. Turkian Anaia Musulmanak 2002tik daude agintean, herrialdeko eta Mendebaldeko establishmentek mesfidantza handiz hartu bazituzten ere, Erdoganek Mendebaldeko demokratekin negoziatioak egiteko gai dela erakutsi baitu.

Mendebalde demokratiko honek diosku zein den benetako demokrazia: agintariak herritarren boto bidez hautatzen dituen. Baina musulmanak ez daude ardua demokratikoak hartzeko prestatuta, nonbait. Horregatik Saudi Arabian, esate baterako, ez dute hauteskunderik egiten.

Antza denez, ezkerre ere ez da agintea hartzeko –bertan irauteko– gauza, horregatik Mendebalde demokratikoak txalotu

eta sustatu izan ditu herritarrek hautatutako ezkerreko gobernuen aurkako estatu kolpeak. Aspaldikoa da Txilekoa, edo sandinisten aurkako gerra, baina azken urtetan Hondurasen edo 2019an Bolivian ere izan dira ezkerreko gobernuen aurkako estatu kolpeak, Mendebalde demokratiko honen espanturik batere gabe. Besterik izango zen agintari horiek betiko kontserbadoreak edo liberalak izan balira.

Baina nola jakin zein den demokrata eta zein ez? Horretaz hedabideak arduratzen dira, denok dakigunez kazetaritzaren egiteko nagusia gureak eta besteak zein diren esatea baita. Gureak, prentsa askatasuna eta, beraz, kazetariak babesten dituztenak dira –baldin hedabideak besteenak ez badira–. Esate baterako, Polonia. •

> «Esklaboen barrakoiak»



Lezoko udala

Frankismo garaian, Jaizkibelgo errepidea eraiki eta behar-tutako beste lan batzuk egiteko, milaka preso pilatu zituen diktadurak Lezon altxatutako barrakoietan. Gizon haien bizi baldintza kaskarrak eta bizi-



rauteko herriko emakumeengandik jaso zuten laguntza dira «Esklaboen barrakoiak» izeneko liburuaren ardatzak, kontatu gabeko historia baten kronika ilustratua. «Lezokuak» izeneko ipuin bilduma ilustra-

tuaren azken zenbakia da, bereziki gazteei zuzendutako sortaren laugarren alea. Mikel Susperregik idatzi ditu testuak eta Lander Zurutuza marrazkigileak sortu ditu irudiak.

Preso horiek bizitakoa eta emakume haien lana ezagutzera emateko, liburuaren osagarri gisa, «Elkartasun haizeak» bideoklipa ekoitzi dute, Garazi Ugalderekin hitzekin eta Iñaki Labakarekin musikarekin. Liburuan agertzen den QR kode baten bidez, Interneten ikusi ahal izango da aipaturiko bideoa.

Xalto ta Brinko Animazio Elkarteak 2018an jarri zuen abian «Lezokuak» gazteentzako ipuin bilduma ilustratua, «herriko pertsonaia edo gertaera historikoak eta beren garaia modu nobelatuan azalduz». Lanak mardulak diren arren, irakurterrazak dira eta helburu akademikoa baino areago, jakin-mina piztea dute erronka. 12 eta 16 urte arteko ikasleen artean banatzen dira, batik bat Lezo Institutuan eta Pasaia Lezo lizeoan.



> Aitzol King

Aitzol King Arenzana irlandarra joan den larunbatean Londresko Stonex Stadiumen jokatu zen Sei Nazioen neurketako protagonista nagusietako bat izan zen 20 urtez azpiko kategorian. Aita irlandarra du eta ama, Euskal Herrikoa. Orain arte oso ibilbide nabarmena egingen ari den errugbilariak aulkian hasi zuen neurketa, 60.



minutuan atera zen zelaira eta sei minutu aski izan zituen bi entsegu egin eta zer-nolako errematatzailea den erakusteko. Aitzol Kingek Sei Nazio hauetan jokatu duen hirugarren partida da eta distira izatea lortzen ari da kirolari gaztea. Amaieran, bere herriko taldearen txapel batekin eta ikurrinarekin ospatu zuen balentria.



> Euskal udalekuak

Euskal Udalekuek izena emateko epea zabaldu dute, 40 urte baino gehiago duten euskara hutsezko udaleku horien edizio berri bat abian jartzeko. Aurreratu dutenez, Abaigarren, Goñin eta Bernedon etxeak prest daude ekainaren 27tik aurrera helduko den lehen txanda eta ondorengoak hartzeko.

Hiru etxe horiek osatzen duten proposamena anitza da, gogoratu dutenez. Leku ezberdi-




nak dira, antolatzeke era ezberdinak dituzte eta adin ezberdinak hartuko dituzte, baina euskara eta natura dira hiruretan udako jardueren ardatz nagusiak. Hizkuntza eta naturaren zaintzaren ondoan, balioen sustapena, jolasa, elkarlana, harremanak, alaitasuna eta aniztasuna dira Euskal Udalekuen osagaiak. Izena emateko webgunean dagoen fitxa bete behar da eta dagoeneko bada aukera.

> Ahots arazoak

Ahotsa gehiegi behartzearen ondorioz, irakasleen artean ohi-koak izaten dira ahots nahas-menduak. EHUko ikerketa batek arazo horiek antsietate mailarekin lotuta egon daitezkeela baieztatu du. Medikuntza eta Kirurgia Doktoregoa programako ikerlan baten emaitzen arabera, azterketan parte hartu zuten pazienteen %73,6k antsietate maila altua erakusten zuen arazoa sortu zitzaiegunean. Ahots kordetako noduluak zituzten 76 irakasleren ka-



suak aztertu ditu Ana Apellaniz EHU doktoreak gidatutako ikerlanak, azterketaren fokuetako bat alderdi emozionaletan jarrita. Azaldu duenez, «ahots arazoa sortu zen unean estres edo antsietate egoera jakinak identifikatu zituen ikerketan parte hartu zuten %64,47k; bestalde, pazienteen %73,6k ahots arazoa sortu zen unean antsietate maila altua zuela adierazten duten emaitzak eman zituen». Ahots terapiaren garrantzia ere nabarmendu du ikertzaileak.



 **Police nationale 63**  @Pol... 1 h

[#JournéeInternationaleDuDroitDesFemmes] Dédicace à tous ces #hommes sans qui rien n'aurait été possible : #JulesFERRY enseignement laïc et obligatoire, #JeanJAURES favorable au suffrage féminin, adoption du droit de vote et d'éligibilité des #femmes sous

> Gizonak

Emazteen Nazioarteko Egunean gizonen aldeko gorazarre me-zua bota zuen frantses Poliziak. Zehazki Puy-de-Dome frantziar departamenduko Poliziak piztu zuen sua. Martxoaren 8an, Emazteen Nazioarteko Egunean, hiru pertsonalitate ezagunek –hiru gizonek– historian zehar berdintasunaren alde eginitako lana nabarmendu zuen,



hautsak harrotu eta azkenean ezabatu egin behar izan zuen txioan. @PoliceNat63 kontutik zabalduko mezua hasieratik erratua zela esatea gutxi da. #JournéeInternationaleDuDroitDesFemmes traolaren pean, zera zioen: «Gizon guztiei eskainia, horiek gabe ezer ez baitzen posible izanen». Sarea sutan eta txioa, ezabatua.



Arantxa Urbe - @arantxaurre
Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Hezkuntza sistema estatala

Haserre dago ama, sinetsi ezinik. Euskal Herriko mapa ekarri dio eskolatik 10 urteko alabak, «ez beso eta ez hanka ez duen mapa zulatua». Neskatilak Donostiako D ereduko eskola publiko batean ikasten du: Donostian eta D ereduan, atera kontuak!

Adituen arabera, «kezkarria da ikasle gehienek eskolan jasotzen duten Euskal Herriaren gaineko jakintza mugatua: ez dira modu sistematikoa erakusten edukiak» (“Euskal Herria testuliburuetan” mahai-ingurua “Berria”-n); «Euskal Herriko ikasle askok eta askok egunero ikusten eta ikasten dute zatitutako Euskal Herria testuliburuetan, gehien-gehienek ez baitute bere osotasunean lantzen. Eragina nabarmena da», (Jose Maria Pastor, EHU); «Euskal Herria, bere horretan, errealitate soziokultural bat den heinean, hizkuntzarekin eta literaturarekin loturik lantzen da, baina ez historia edo geografiarekin. Horixe egiten dute argitaletxe gehienek», (Gurutze Ezkurdia, Begoña Bilbao eta Karmele Perez, Bilboko Hezkuntza fakultatea).

Mapen kontua ez da beti horrela izan, ordea, atzerako bilakaeran dago. Ezkurdia, Bilbao eta Perezek 1875-2010 aldiko Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasliburuak aztertu zituzten: «XX. mende hasieran, Euskal Herriko mapa lantzen zen eskoletan; mende amaieran mapa autonomikoak ere bai; XXI. mendean joerak egonkortu eta ikuspegi autonomikoa nagusitu da». Ez al da segregazioa Nafarroaz, Lapurdiz eta Zuberoaz ez aritzea Euskal Herriaz ari garenean?

Ezkurdiak dio estatuko hizkuntzaren eta kulturaren erreproduzioa bermatuta dagoela; ez, ordea, Euskal Herrikoa, errealitate soziokulturala den heinean. Curriculum oso modu unibertsalean dago, eta bertako ezagutzei oso leku txikia uzten zaie. Ondorioa? “Ez dena ezagutzen ez da existitzen!”.

Bestalde, 2019an egindako ikerketek berretsi dute testuliburuaren ekoizpena eta erabakigunea estatu mailako argitaletxeen esku dagoela: Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako eskoletan curriculum espainiarra da

zabalduea. Denak bat datoz: kulturaren erreproduzioa nekez burutzen da hezkuntza sistemaren bidez. Identitate kulturalaren ezaugarriak mantendu nahi baditugu, Euskal Herriaren izaera soziokulturalean oinarritutako ezagutza bultzatu beharko dugu.

Euskal Herria osorik ardatz hartu eta irudikatzen duen argitaletxe bakarra dugu, Ikaslekar hezkuntza argitaletxea. Ikastolek eta zenbait eskola publikok eta gizarte ekimenek erabiltzen dute. Gure ikasleen gehiengoa, baina, ez da euskal curriculumaren erabiltzaile. Beraz, ikasleak espainoldu eta frantsesetan dituzten hezkuntza sistema estatalak ditugu nagusi.

Sistema estatal honek ez ditu ikasle guztiak euskaldun-zen derrigorrezko eskolaldiaren amaieran, eta, gainera, Euskal Herriaren ezagutza eskasa eskaintzen die gehienei. Funtsezko gai horiek bihurtzen dute urgente Euskal Hezkuntza Sistema bultzatzea.

Euskal Herria 21.000 kilometro koadroko orubea eta 3.000.000 pasa biztanle dituen lurraldea da. Harro nengoke gure heziguneetan lurralde horren mapak eta euskal dimentsioa bagenitu. Harro, eskolan euskaldunak aipatzean nafarrez, zuberotarrez eta lapurtarrez ere hitz egiteaz. Guztiak, euskaldun guztiak, munduko mapan kokatzen gaituen eskolaz harro nengoke. •

osasuna / hiriarren lo(r)aldia / hezkuntza

3 BEGIRADA:



«Euskaldun guztiak munduko mapan kokatzen gaituen eskolaz harro nengoke».

Guillaume FAUVEAU

BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



L'ILLUSTRATION FRANÇAISE

GERRA ARGAZKIA, HONDAMENDIAREN ISLA

Lehen Mundu Gerraren hasieran, lubakietan zeuden soldaduek dokumentatu zuten Gerra Handia beren kamerekin. Multinazional handiek beren modeloak jendarteratu eta saltzen zituzten, "Le Kodak du soldat" kasu. Beste marka batzuk, hala nola Ansco estatubatuarra edo Ensignett ingelesa, ez ziren atzean geratu eta euren publizitatean soldaduak animatu zituzten kamerak erostera gerraren memoria gordetzeko. Gatazka horretan lanean hil zen Jean Baptiste Sanson Partarrieu, Hazparneko argazkilari euskalduna, gaur egun arte iristen den zerrenda luze horretako lehenbizikoetakoa. "Lux" argazki aldizkariak 1918an argitaratu zuen "Argazkigintza eta gerra" izeneko artikuluan, gerrak argazkigintzaren zale kopurua handitu zuela adierazi zuen. Bere gomendioen artean, gailu txikiak erabiltzeko gomendatzen zuen, eta ez eramateko kolpeen ondorioz erabilezin bihur zitezkeen makina garestiak. Artikuluan, halaber, negatiboak tokian bertan errebelatzeko osagarrien eta hainbat gai kimiko motaren zerrenda ageri zen, eta hartualdi motak ere azaltzen zituen. Gudu zelaiko gaiak ez ziren falta, bonbardaketetatik trumilkako erasoetara, atzeguardietatik behaketa puntuetara. Kodaken soldaduen kameraren publizitate hotza edo "Lux" aldizkariako artikulua alde batera utzita, gerrako argazkiaren errealitatea giza dramaren, bonbardaketan, suntsitutako eraikinen, heriotzaren edo errefuxiatuen ibilaldi luzearen isla da. Guk oso ezagunak ditugun irudiak, batez ere 1936ko gerrakoak. Frankistak 1936ko irailaren hasieran Irunen sartu zirenean hildako erresistente eta zibilen talde bat erakusten du artikulua ilustratzen duen argazkiak. Irudi horrek antzeko suntsipen eta heriotza agertokietara eraman gaitzake XIX. mendeko, XX.eko eta gaurdainoko beste gerra batzuetan.

*Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua*



GAUR8 Larunbatero **GARA**rekin

20319
9 771887 675001